


URRATS

UR AT'S

URRA S

U RATS



URRATS

euskal pedagogia 0.zenbk. ekaina 78




5 ENE. 1979

VR-027/6-4

12K:6782

URRATS URRATS URRATS URRATS



URRATS

euskal pedagogia 0.zenbk. ekaina 78

EGILEAK:

Irakasle talde bat
(Irakasleen Elkartea)

HELBIDEA:

Sto. Tomas Lizeoa
Polígono Cultural Ibaeta
Tel. 21 07 83
Donostia

DISEINUGILEA:

M. Mendizabal

AURKIBIDEA

HITZAURREA. Irakasle talde bat	5
EUSKAL ALDIZKARI PEDAGOGIKO BAT SORTZEKO OINARRIAK. Irakasle talde bat	7
GEOMETRIA. X. Uriarte	9
DIAGRAMA MATEMATIKOEI BURUZ. J. M. Goñi ...	17
SEKSU HEZIKETA. A. Mendizabal	40
EUSKARA. GURE IKASLEAK ETA IRAKURKETA. G. Etxeberria	56
JOLAS TXOKOAK. Txaro Altza	64
ESPRESIO BIDEAK URRATZEN. M. Mendizabal ...	70
IRAKASLEEN ELKARTEA	81
GORDAILU. Gordailuko Arduradun Taldeak	85
FEDERAZIOA	89

REAHTZAUURREAHTZA

Aldizkari honen sorreraren historia piska bat

Gure artean aldizkari pedagogiko baten beharra aspaldi-aspalditik sentitzen genuen. Hori bera gertatzen zen beste lekuetan ere. Esango genuke behar larri bezala sentitzen zela (eta dela) nonahi. Gaur arte, Ikastola bakoitzeko Irakaskuntzak eta Pedagogiak bere kasa jokatu du, bere artean konesio askorik gabe.

Egin dira zenbait saiaketa, zeinak arrazoi batengatik ala bestearengatik, itzali bait ziren.

Hori ikusiaz, zenbait irakaslek pentsatu dugu, bide hau berriro urratzea eta serbizio hau Ikastola guztiei eta inguruan lanean dihardutenei eskaintzea.

Ikastolek, hasiera hasieratik, pedagogi berritze bat egin dute. Pedagogia aktiboa eraiki zuten, ingurune kontrako bati amor eman gabe. Honek inbentiba, asmakizun, inbestigazio espiritua eskatzen du.

Gure artean, ikastoletan espiritu horrek iraun du. Eta eman ditu bere fruituak. Baina fruitu partzialak. Guk uste dugu, luzarora, hori kaltetan dela. Besteen berri jakiteak, gure pedagogia aberastuko du.

Izan ditugun laguntzak

MORALAK. — Leku askotatik esan digute eta galdetu digute aldizkari honen berri. Noiz argitaratuko zen, zer nolakoa egituratzeko asmoa genuen, eta abar. Zerbait ari ginela esatean, denak animoak eman dizkigute. Eta lanean gogor jarraitzeko esan digute.

Guk beti pozik eman ditugu behar ziren esplikazioak. Baita ere kolaborazioa eskatu, plazoak jarri, eta abar.

Jaio baino lehen daki aldizkari honek zailtasun horien berri. Inor gutxi izan da lagundu duena. Asko izan arren agindu zutenak. Ez dago besterik. Inor gutxik lagundu du. Jendearen atzetik gehiegi ibili gara, ezer gutxitarako. Azken finean, denak lan gehiegirekin dabilzala konprobatu dugu. Beste zenbaitetan alfer xamarrek ote garen ere bai idazteko.

EKONOMIKOAK. — Diru laguntza ere zihurtzat jotzen genuen. Zenbaitetik berotu ziguten burua, hortaz ez kezkatzeko esanaz. Baina laister kontentzitu ginen, hori ez zela hain horrela. Azkenik, kezka hori ere gure gain hartu beharra izan dugu. Inor gutxik lagundu du. Batzuek organizazio serio bat ikusi nahi zuten gure inguruan, besteak ezin zutelako, besteak... Ez du penak merezi denak aitatzeara.

Kritika eta Laguntza

Asko poztuko gineteke aldizkari honen alderdi on eta txarren berri inorengandik jasoko bagenu. Honelako aldizkari batek guztion iritziaren beharra dauka. Beraz, guztiak izango dira onartuak.

Baina, zera esan nahi genuke: ez dadila gera, kritika hori, hortan: kritika hutsean. Kritikak berarekin beste gauza bat dakar segidan: kolaborazioa. Bata da beso bat eta bestea bigarren besoa. Guk ahalegina egin dugu. Ahalegin hori gabiltzan kondiziotan motza da. Horregatik eskatu dugu kolaborazio hori. Pedagogi esperientzi praktikoak dituen edozeinek, hemen euki lezake bere plaza.

Bukaera

Gure helburua, urtero lau aldizkari argitaratzea litzateke. Baina... ez gara iristen. Beraz, oraingoz, al dugunean aterako dugu. Materiala osatzen denean. Dena dela urtero bi ale argitaratzea posible izango dela pentsatzen dugu.

EUSKAL ALDIZKARI PEDAGOGIKO BAT SORTZEKO OINARRIAK



Gaurko euskal-pedagogia nazionalaren egoera

«Euskal-pedagogia nazionala» izentzat, zera uletzen dugu: Zenbait lekutatik gure eskutara etortzen diren sistema eta pedagogia planteiamenduen euskaratze eta moldaketan gainera (Heziketaren Ministeritza, Frantziako edo Espainiako Institutio pribatuena), euskal pedagogia nazional bat sortu nahi duena, gaurko edo biharko euskal gizonaren benetazko beharrei erantzunaz edo erantzuten saiatuaz.

Bide hontan, Ikastolak dira, gure ustez, zerbait aldeko eta konkretoa egiten ari diren hezileku bakarrak. Eta, 1944 ean ireki zen ekite gogor hau da gaur egun, helburu horietara iristeko bide bakarra.

Euskal planteiamendu pedagogikoak, haurgintzatik hasi eta Unibertsitatearaino hartu behar du. Utopiko samarra deritzaigu Unibertsitateaz mintzatzea, aurreko planteiamendu pedagogikoak oraindik ere definitu gabe edo definitzeko bidean dauden artean (eskolaurrea, oinarrizko heziketa, batxilera...).

Ikastolaren pedagogiak ez du galdu bere kualitate berezia. Eta «bilaketa», «gaurkotze» eta «berrebisatze» ekintzetan jarraitzen du.

Baina, gaur egun Ikastola aurkitzen den egoera espeziala bitarteko dela, pedagogikoak ez diren zenbait problemak tartekatzen dira barnean: zailtasun ekonomikoak... autogestio... funtzio gehiegiak. Hain zuzen, giro kontrario eta desegokitan desarroitzen den instituzio baten gorabehera latzak.

Egoera guzti horrek, Ikastola bakoitza bakarka ari izatera behartzen du, egunero sortzen diren hamaika egoera, bakarka soluzionatzen.

Horregatik, erabat zail gertatzen da, bata eta besteen arteko koordinaketa eta pedagogia esperientzien elkar ezaguera (Eta dudarik ez, Ifar eta Hego Euskalerrian egiten direla horrelako hamaika).

Euskal pedagogia aldizkari baten helburuak


Gaurko egoera eta oraingo eta biharko beharrak gogoan izanik, behar-beharrezkoa dela uste dugu, azkenengo 33 urte hauetan egin dena ezagutzeara eta zabaltzeara: urte hauetan izan diren problema, soluzio, planteiamendu, esperientzia, gure aberriko edozein bazterretan gertatu direnak.

Gu, irakasle talde bat izanik, erakunde nazional bat sortzen ez den artean, prestu gaude zulo hori betetzera. Eta aldizkari hau sortu nahi dugu, gaur arte euskal pedagogian egin den eta egiten den informaketa teknikoa, ahalik eta laisteren, interesa duten guztien eskutan jartzearren. Hitz batetan, elkarren artean dugun material eta pedagogiaren berri jakitea da gure helburua.

Bistan da era hontako talde tekniko baten planteiamendua ez dela gaurko gauza. Horrelako zerbait lortzeko entseiuak egin dira. Baina, gure pedagogia honen zenbait berezitasun direlata, eta Ikastolen Koordinatzaile Elkartearen zailtasun eratzailerik eta administratzaileegatik (Ikastolen Federazioa, Ikastolen Elkarteak, Seaska...), bat dela edo bestea dela, ez dugu gaur egun horrelako argitaldari teknikorik.

Beraz, garaia dela uste dugu. Horregatik irakasle talde honek, autonomikoki jokatuaz eta posible dutela ikusiaz horrelako argitaldari bat egitea, behar diren lanekin hasi nahi lukete. Dena dela, argi geldi bedi, ez duela gerora begira, eragozpenik izango, euskal pedagogia nazionalaren interesak dituen organismo baten eskutan, edota era hontako zerbait teknikoa egin eta indartzeko era hobeak dituen eskutan aldizkari hau uzteko.

Gai hauek, eta askoz gehiago ere, sartu beharko dira argitarapen honetan. Beti ordea, Ikastolekin gai horiek duten zerikusia gogoan izanik. Besteak zer egiten duten eta zer egin nahi duten azalduaz. Era hontan besteen zerbitzuan jarriko da eta azken finean guztion artean definitu behar dugun Euskal Pedagogia nazionalaren interesen zerbitzuan.



ge geom geometr geometriaz

MATERIALA

Geometriaren irakaskuntzarako materialaz aritzean, bi material mota bereiztuko nituzke: alde batetik, burututa izan den material bat eta interesgarria izan daitekeena ezaugarri berezi batzuk betetzen dituelako edo inongo aldaketarik gabe errealitate bertatik aprobetxatzen den beste material bat. Lan hau bitan zatituta dago eta zati honetan lehenbiziko eratako materialak azalduko ditugu gehienbat, bigarren zatirako errealitatearen aprobetxatze hori utziaz.

LINEA POLIGONALAK




1. — Marrazkian ikusten diren tirak (egurrezko edo beste material batez eginak) oso material esperimentatua da linea poligonalak lantzeko. Luzera desberdin batzuk izan behar dituzte eta tiren kopurua handi xamarra, haur guztiak esperimentatzeko aukera izan dezaten. Hasiera batean nahiko iruditzen zait, inongo mugarik gabe, materiala haurrari eskaintzea bere esperimentuak egin ditzan. Geroxeago, ahozko bizigarri batzuen bidez haurra bideratzea egokia litzateke.

Jar dezagun adibide bat:

«Osa itzazu linea hertsia».

«Bakarrik TRIANGELUAK osa itzazu».

Triangelua lantzerakoan zenbait propietate aurki daitezke; adibidez: «edozein hiru tira hartuz gero, ez da triangelu bat osatzen».



Edozein triangelu batek bete behar duen legea hauxe da: $a + d > b$

«Alde baten neurria, beste bi aldeen neurrien batura baino txikiagoa da».

Prozesu honetan pauso batzuk eman ditugu eta ez dugu esan nahi haurrak berak pauso guztiak eman behar dituenik. Razionaliza ditzagun emandako pausoak:

1. — Errealitate bat (tira, tirak elkartuak).
2. — Errealitate horren lehen abstrakzio maila (izendaketa, LINEA POLIGONAL, TRIANGELU, HERTSIA...).
3. — Errealitate horrek betetzen duen lege baten asmaketa (kasu batzutan bakarrik egin daitekeela triangelua).
4. — Lege horren ahozko formulaketa.
5. — Lege horren matematikako formulazioa.



Lehenbiziko hiru pausoak ematea (hirugarrena zailena izango da noski) adin batzutarako nahiko izango litzateke. Beste bik, eskatzen duten ahalmena, hizkuntza aldetik abstrakzio mail aldetik eta abar, beste adin batzutara mugatuak gelditzen dira.

Jarrai dezagun ahozko estimuloekin:



«Osa itzazu LAUKIAK bakarrik».

«Zer desberdintasun nabarmen aurkitzen duzu LAUKIAK eta TRIANGELUAK egiterakoan?».

Errealitateari begira, ikusten da nolaz aspalditik gizonak gehienbat erabili duen estruktura bere etxeak egiteko TRIANGELUA izan dela edo TRIANGELUZ osatutako estruktura bat.




Orain ere, TRIANGELUA nagusiki agertzen da estrukturekin (gruak, posteak, lantegiak...). Eta hau ez da kasualitate bat. TRIANGELUA zurruna den estuktura bakarra da. Lauki bat egiten baduzu, formaz aldatzeko posibilitatea dago.




Beste gai bat halako materialarekin landu daitekeena, POLIGONO ERREGULAR ena da. Azter ditzagun: «luzera berdineko tirak hartuaz osa itzazu aldean kopuru desberdina duten linea poligonalak», estimuloekin sortutako linea poligonalak. TRIANGELU ALDEKIDEA ez beste, gainontze-koak ez dira zurrunik eta formaz aldatzen dira:

Pentagono erregularra





Ez da pentagono erregularra



Ikusten da perimetroa ez dela aldatzen, aldeen luzera alegia, baina bai angeluak. Askotan poligono erregular baten definizioa ematerakoan, bakarrik aldeen luzeren berdintasunetaz gogoratzen gara, angeluena ahaztuaz. Esperientzia honek POLIGONO ERREGULAR zer den definitzerakoan, aldeak eta angeluak kontuan hartu behar direla gogoratzen digu.


PERIMETRO ETA AZALERA ¹



Bi konzeptu hauk bere dinamikotasunean hartuaz ulerkorragoak egin daitezke, Lehenbiziko kasuan, oina ez da mugitzen, goraka doazen aldeak gomazkoak dira; goiko aldea ez da neurritz aldatzen eta deslitzatu egiten da.

Ardatz hortatik (goiko alde hori tubo bat izan daiteke eta ardatza barrutik pasatzen da). Sortzen diren laukien kopurua mugagabea da, denak

¹ EMMA CASTELNUOVO: *Didáctica de la matemática moderna*, Ed. Trillas, México.




daukate propietate bat: «azalera berdinekoak direla»; badago perimetro txikiena duen bat eta asko tiratuz gero, alde batetik edo bestetik eta aske utziz gero, posizio hortan geratuko litzateke, gomek tentsio txikiena soportatzen dutelako. Segun ze mailak proposa liteke balioen taula bat egitea edozein bi aldagai hartuaz: perimetroa eta L adibidez.

Gero, taula horren datoak grafiko batera pasa eta behar bada bi aldagai horiek betetzen duten legea asmatzea eta formulatzea (Basika 8, bup, 1).

Intuitibo mailan ere utz liteke azterketa eta orduan beste mail bajeogotan erabiltzea egokia izango litzateke.

Bigarren kasua oso antzekoa da eta konklusioak lehenengo kasurako aipatu direnak berak.

Beste gauza bat esan genezake bi kasu hauetan: ekilibriozko posizio hori lehenbiziko kasuan LAUKI ZUZENARI dagokiola, beste posizio guztiak PARALELOGRAMOAK izanik eta bigarren kasuan TRIANGELU ISOSZELEARI.




Soka hertsia bat materia egokia izan daiteke laukiak egiteko. Muga dezagun gehiago: LAUKI ZUZENAK egiteko.

Lauki guztiak izango dute ezaugarri komun bat: perimetroa, sokak ez bait du elastizidaderik.


Bat izango da azalera handiena duena. Taula eta grafiko bat eginez gero, argi xamar geratuko da ze kasuan gertatuko den hori (karratuaren kasuan).

Beste adibidean bezala material hau, intuitibo mailan azter daiteke edo azken azterketa matematiko egin arte; alegia, legea bilatu eta matematikoki formulatuaz puntu berezi horren bilaketa (azalera handiena duena alegia).



POLIEDRO ERREGULARRAK

Plano batetik, bolumen bat sortu nahi badugu, honako bide hau jarraitu beharko genuke:





Har ditzagun ezagutzen ditugun poligono erregularrak eta saia gaitzen planoak lortzen poligono horik erabiliaz. Has gaitzen triangelu adibidearekin:

Bata bestearekin lotzeko bisagrak erabil daitezke honela, nahiz eta lotuak egon mugitzeko posibilitatea dute.


Puntu batetan sartzen diren triangeluak 6 dira eta honela plano bat osatzen da.

Aipatutako bidea erabiliaz has gaitzen mozketak egiten baino mozketak bakoitzean 1, 2, 3... triangelu kenduko ditugu.




a) Triangelu bat kenduaz.


Eransten baditugu urdinez dauden ertzak bolumen bat ateratzen zaigu eta bolumen hori IKOSAEDROAREN ezaugarria da.




b) Bi triangelu kenduaz eta prozesu berdina eramanaz ateratzen zaigun bolumena OKTAEDROaren ezaugarria da.



d) Hiru triangelu kenduz, TETRAEDROaren ezaugarria dugu.




Beste bat gehiago kentzen badugu, honako hau gelditzen zaigu eta urdinez dauden ertzak lotuz gero ez zaigu bolumen bat ateratzen beste plano bat baizik.




e) Har dezagun oraingo honetan, lau aldeko poligono erregularra: KARRATUA.

Puntu batetan 4 karratu sartzen zaizkigu plano bat osatuaz.




Jarrai dezagun bide berdinetik eta has gaitzen horietako karratu bat kentzen:

Urdinez dauden ertzak lotuz gero HEXAEDROAren bolumen ezaugarria ateratzen zaigu.



Eta bi karratu kentzen baditugu ez da bolumenik sortzen, horregatik HEXAEDROA da, poliedro bakarra bere azala KARRATUAZ osatua duena.




f) Hurrengo poligono erregularra PENTAGONO ERREGULARRA eta esperientzia eginez gero ikusten da nolaz puntu batean gehienez 3 Pentagono erregular sartzen diren zulo bat geratuaz.

Lotzen baditugu urdinez dauden ertzak DODEKAEDROaren bolumen ezaugarria dugu eskutan.

Prozesu honi jarraipena ematen badiogu eta 6 aldeko poligono erregularra hartuaz, honako hontaz kon-turatuko ginateke:

puntu batetan 3 HEXAGONO ERREGULAR sartzen direla zolorik gelditu gabe, eta jarraitzen badugu bolu-mena sortzeko bidea, bi bakarrik gelditzen direla eta po-sibilitaterik gabe bolumena sortzeko.



Zazpi aldeko poligono erregularra hartuz gero ikusiko dugu nolaz 2 ba-karririk sartzen diren puntu batetan eta berdin gertatuko zaigu hemendik aurrera, POLIEDRO ERREGULARREN sorrera hau (?) aurkituko 5 po-liedro horiekin bukatuaz.

Errealitatean aurki daitezke beste bolumen klase, nahiz eta poliedro erregularrak ez izan bere azala poligono erregularrez osatuak dutenak. Posi-bilitate asko daude, adibidez:




Futbol baloi batzuk estuktura honekin eginak daude, baina art-ikuloaren hasie-ran esaten nuen bezala beste ma-terial batekin sar-tzen ari gara, ale-gia, errealitateak berak eskaintzen duen material ba-tekin eta gai hau hurrengo art-ikulo batetarako saiatu-ko gara presta-tzen.

DIAGRAMA MATEMATIKOEI BURUZ

1. Sarrera

Diagrama matematikoak eguneroko tresnak ditugu gure klase eta lanetan; hala ere, diagramak zabalagoa den beste arlo baten zati dira, adierazpen matematikoaren zati bat hain zuzen. Adierazpena, zeharo zokoraturik dugun gaia da, edo ez zaio behar hainbat garrantzia ematen, behintzat. Adierazpena zerbait berezko edo naturala balitz bezala erakusten eta azaltzen da; baina iritzi hau oso okerra da. Adierazpena irudi da eta irudi den neurrian giza aktibitateak sorturikoa, irudi den neurrian errealitatearen ispilu da; irudi den neurrian abstraktoa eta komenioz onartua.

«Hiru hiruki gorri» errealitate fisiko bat dugu, baina Matematikan lan egiteko errealitate horren irudi bat behar dugu; hona hemen erabiltzen diren bi:



Egindako adierazpen hauk komentatuaz zera esan daiteke:

— 1. Adierazpenean, lerro hertsi baten barruan ipini ditugu «hiru hiruki gorri» horien irudiak, zergatik lerro hertsi bat? multzo bat osatzen dutela azpimarkatzeko; bainan lege hau komenioz onartua dago. Ez da berez «hiru hiruki gorri» horien multzoa duen propietaterik. A bat ipini dugu lerro hertsia kanpoaldean; multzoaren izena da; zergatik kanpo eta barruan? Barruan idatziz gero elementu bat dela pentsatuko genukeelako; eta zergatik letra bat? Erraza delako; eta zergatik A? gustatu zaigulako. Jarraitu behar ahal dugu erakusten noraino den artifiziala holako adierazpena? ez, noski.

— 2. Adierazpenean, komenioz egin den zerrenda ez da makala, arraio.

A izena, gustoz jarrita.

= marka ez dakigu oso ondo zertarako.

{,} bi giltza, multzoa mugatzeko.

▲ hirukien irudiak.

, komak elementuak separatzeko.

Eta hau guztia «hiru hiruki gorri»en multzo sail bat adierazteko; adierazpena oso gauza konplikatua da, ona eta fidela izatea nahi ba dugu; eta gure irakaskintzan «ahate itsusiaren» jokoa egiten duela dirudi, ez da inor beraz kezkatzen.

Lantxo honen helburua hauxe dugu hain zuzen: adierazpenari buruz kezka bat sorraraztea eta arlo honetako ikerketak esnatzea; pentsa dezagun, gainera, gai guztiz orokorra dela adierazpenaren hau, zientzia guztiak ikutzen dituen eta irakasle guztien aportazioa eskatzen duena.

Nik neuk, hondar ale bat eskaini nahian EGB-ko bigarren etapan erabiltzen diren diagramen zerrenda bat prestatu dut eta komentatzea hartu lantzat; komentario honetan ohar pedagogikoak ematen dira gehienbat, matematikoak ahantzi gabe eta adierazpen ordenatuago eta logikoago bat osatzeko lagungarri gerta delakoan pantsatuz ekin diot lanari.

2. VENN diagrama

Diagrama hau multzoak adierazteko erabiltzen da; lerro hertsi baten barruan dibujatzen dira multzoaren elementuak. Hertsia izateak badu bere arrazoia, elementuak zeintzuk diren ondo bereiztea, alegia; batez ere multzo bat baino gehiago adierazten direnean elkarrekin. Izena, erosoago izatearren, ezartzen zaio eta komenio hutsa da.




Diagrama desegokia, ez bait dago argi zenbat multzo da-
goen eta elementu bakoitza
zein multzokoa den.




Diagrama egokia, bi multzo
daude eta multzo bakoitzaren
elementuak erabat argi mu-
gaturik daude.


Diagrama honekin askotan egiten den akatsa zera da: lerro *itxia* beti borobila izatea.

Nik 10 urteko ikasle baten ahotik ondorengo erantzun hau jaso dut:

IRAKASLEAK (behar ez dena galdetuaz): Zer da multzo bat?

IKASLEA: Gauza borobil bat.


Galdera ez zen oso egokia, agian, baina erantzunak oso ondo erakus-
ten du haur horren mentalitatea; VENN diagrama ez zen berarentzat mul-
tzoaren (kontzeptuaren) irudi bat baizik eta multzoa bera: hau, noski, alderdi
bat da; bestea lerro *itxi* horren borobiltasunak gehiegi markatzen du itxita-
sunaren beharra; ez al litzateke egokia izango lerro *itxiari* forma gehiago
ematea?




A



A



A



A



A



A


VENN diagrama honekin beste zailtasun bat aurkitzea oso normala izaten da, batez ere multzo berezi batzuk adierazteko.



Koadro barruko puntu guztien multzoa adierazteko ezkerreki hau dugu VENN diagrama, puntu guztiak adierazteko asmoak eragin gaitu barrukoa marraztera.


Nere esperientzia kaskarrak, ikasleek ez dutela multzo horren adierazpen bezala ezkerreko dibujo hau ulertzen esaten dit, 10, 11 urteko edadeetan puntuak ez dituzte ikusten, eta ez da harritzekoa, (ez bait daude), izan ere dibujo hau oso ugariak izaten dira urte hauetan.

Eta hori baino ugariago honelako hauk ebakidura edo bilkura adierazteko:



U

U — Unibertso multzoa
 A — A multzoa
 B — B multzoa
 $A \cap B$ — A eta B arteko ebakidur multzoa





U

U — Unibertsu multzoa
 A — A multzoa
 B — B multzoa
 $A \cup B$ — A eta B arteko bilkur multzoa

Egokiak al dira diagrama hauk holako edadeetan?



Beste kaso interesgarria zera dugu, N eta Z multzoen adierazpena.

Nola egiten den



Multzo usaia zeharo urrun dago adierazpen honetan,
multzo honen bukaezintasuna bezain urrun.

Nola proposatzen den



Lerroak, VENN diagramako lerro ITXIA izan nahi du, ez dugu IXTEN multzoaren bukaezintasuna adierazteko (gezi muturrek helburu berdina dute)


12 eta 13 urteko mutikoek oso ederki jasotzen eta erabiltzen dute diagrama hau edozein forman azaltzen delarik; gazteagoetan zailtasun nabariak azaltzen dira multzo bukaezinak edo infinituak adierazten direnean.

3. Diagrama cartesiarra edo CARTES diagrama

Diagrama cartesiarra, berez VENN diagrama bat litzateke, eta adierazi beharrekoa beste bi multzo arteko biderkadura denean.

ADIBIDEZ:


Zenbait desplazamendu desberdin sor daiteke A, B ala C puntuak abiatu direlarik eta E eta F helburu.



Dudarik gabe, desplazamendu posible horien lehenengo lekuan A, B ala C puntuak eta bigarrenetan E ala F puntuak dituen bikoteen multzoa da; multzo hori $M = (A, B, C)$ eta $N = (E, F)$ ba dira $M \times N$ multzoa da.

$$M \times N = (A, E), (A, F), (B, E), (B, F), (C, E), (C, F)$$

Diagrama cartesiarrak $M \times N$ multzo hau nolaz osatu esaten digu.



Lehenengo multzoa lerro horizontalean adierazten da, elementu bakoitzari puntu bat emanez. VENN diagrama.

Bigarren multzoa (lerro zut edo bertikalean adierazten da) elementu bakoitzari puntu bat emanez. VENN diagrama.

Puntu horietatik ateratzen diren zuzenak sare bat osatzen dute, sare horren korapilo bakoitza multzo berriaren elementu bat da, eta elementu hori bikote bat, korapilatzen diren bi horien elementuz osaturik, hain zuzen.

Diagrama hau guztiz garrantzitsua da Matematikan, eta zoritxarrez oso gaizki dibujatzen da normalean. Egiten diren dibujoetan ez dira errespetatzen behar diren lege funtsezkoenak ere.

Holako taulak oso ugariak izaten dira gure texto liburuetan.


Taula honetan bi multzo arteko biderkadura azaltzen da.

$$A = \{\square, \cup, \circ\} \text{ eta } B = \{\text{flower}, \text{diagonal lines}, \text{vertical lines}, \text{four squares}, \text{spade}\}$$

multzo artekoa, hain zuzen, irudi eta dibujo hauekin osa daitezkeen diseinuen multzoa adierazten du delako taula honek.

Izan ere eta diagrama cartesiarra denez gero zeharo aldrebesa; hona hemen arrazoiak:

- ez da argi ikusten elementu horiek multzo bat osatzen dutenik.
- ezin daiteke jakin zein den lehenengo multzoa, ezta zein bigarrena ere.
- biderkadura multzoaren elementuei ez zaie adierazpen zehatzik ematen.
- horrelako taulak oso egokiak dira eragiketak adierazteko eta eginbehar horretan ugari erabiliak gainera. Ez da komeni, beraz, gauzak nahastea.




Hona hemen guk proposatutako ordaina, diagrama cartesiarra bezala ondo osatua dagoena.

Hona hemen beste adibide bat, askotan egiten den okerra zuzentzeko sistema bat proposatuaz.


Nola egiten den

Nola proposatzen den

Koordenatu sistema



$N \times N$ MULTZOA




Erabiltzen ditugun elementuei izaeraz dagokien itxura eman behar zaie. Multzo bat erabiltzen badugu, multzo itxura eman behar diogu, horretarako VENN diagrama erabiliz. Ez da oso bidezkoa multzo bat adieraztea dagokion forma errespetatu gabe; jokabide honek nahaspila sorrarazten du eta hainbesteraino ez bada heltzen ere, logika baten falta dudarik gabe; tarako VENN diagrama erabiliaz. Ez da oso bidezkoa multzo bat adieraztea ondorioz, ikaslea despistaturik gelditzen da. Dirudienez problema bakoitzak bere adierazpen berezia dauka eta oraindik okerrago dena, problema horren soluzioan sartzen diren elementuen adierazpena desberdina da segun noiz, nola edo non; gure jokabideari batasun falta dario zirrikitu guztietatik eta ikasleak ezin du jaso ematen ez zaiona; ez du beraz lortuko ikuspegi zabal bat, ez du eraikiko matematikak eskatzen duen egitura logikoa.

3 - a — Zuhaitz diagrama

Diagrama honen zereginak diagrama cartesiarrarena gainditzen du; bereizketa bi ditu:

- ezin daiteke erabili multzo bukaezinekin.
- posible da hirukoteak, laukoteak eta abar osatzea, beraz cartesiarra baino zabalagoa da.

Plantea dezagun berriro diagrama cartesiarra azaltzeko jarri den adibidea.



Zenbat desplazamendu desberdin sor daiteke A, B eta C puntuak abiaburu direlarik eta E eta F helburu.

Soluzioa bikotez osaturiko multzoa dela lehenago esana dago, hemen bikote horik nola sor ikusiko da.




Diagrama honek egokiago dirudi eraikuntza logiko bat jarrai ahal izateko; osatzeko honako galdera hauk egin bait daitezke:

GALDERA: Zein egon daiteke lehenengo tokian?

ERANTZUNA: Bai A, ala B, ala C.

Galdera berriro: Eta behin lehenengo tokian A jarriaz gero, zein bigarren tokian?

Erantzuna: E ala F ezin bestean.

Galdera berriro: Eta behin lehenengo tokian B jarriaz gero, zein bigarren tokian?

Erantzuna: E ala F.

Galdera berriro: Eta behin lehenengo tokian C jarriaz gero, zein bigarren tokian?


Erantzuna: E ala F.

Galde-erantzun sorta honek diagrama osatzeko jarraitzen den bidea erakusten digu.

Batzutan ez dira multzoak VENN diagramaz adierazten. Ez zait oso komenigarria iruditzen diagrama ondo menperatu arte.

Ikus dezagun beste adibide bat, baina orain hirukoteak sortuaz. Polinomioak sailkatzeko hiru kriterio erabiltzen dira: *osatua - ez osagabea; ordenatua - ez ordenatua; eta ordenatua izanez gero gorako ordena - beherako ordena.*


Zenbat polinomio klase sortzen dira?



- 1 Polinomio osatua, ordenatua, gorako ordenean.
- 2 Polinomio osatua, ordenatua, beherako ordenean.
- 3 Polinomio osatua, desordenatua.
- 4 Polinomio osagabea, ordenatua, gorako ordenean.
- 5 Polinomio osagabea, ordenatua, beherako ordenean.
- 6 Polinomio osagabea, desordenatua.

Diagrama hau oso interesgarria da arrazoi askorengatik; erabilgarria oso, orokorra ere, ikaslearen buruan ordenazio logikoa sor arazten duena, oso txikitatik bere azken ikasketetarako lagunduko diona; hala ere oso gutxitan aipatzen da eta nere ustez gehiago erabiltzen saiatu beharko ginateke.

Oso egokia dugu lehenengo urteen joku logikoetarako, *adibidez*: E.G.B.-ko 1 edo 2 mailetarako.



GALDE-ERANTZUN POSIBLE BAT

A multzoa, a bat duen karratuen multzoa duzu, idaz ezazu:

$$A = \{ \boxed{a}, \boxed{\cancel{a}} \}.$$

Egitura logikoa: a eukitzea ETA $\boxed{}$ izatea.

B multzoa, a bat ez duen gurutzerik gabeko borobilen multzoa:

$$B = \{ \textcircled{b}, \textcircled{c} \}.$$

Egitura logikoa: a ez eukitzea ETA O borobila izatea ETA X ez eukitzea.

C multzoa, b bat duen borobil edo karratuen multzoa:

$$C = \{ \boxed{b}, \boxed{\cancel{b}}, \textcircled{b}, \textcircled{\cancel{b}} \}.$$

Egitura logikoa: b bat eukitzea ETA borobila EDO karratua izatea.

Zein da D multzo honi dagokion definizioa:

$$D = \{ \boxed{b}, \boxed{\cancel{b}}, \boxed{c}, \boxed{\cancel{c}} \}.$$


b EDO c bat duen karratuen multzoa.

Egitura logikoa: b EDO c eukitzea ETA karratua izatea.

Baita egokia da goragoko mailetan ere.

Adibidez: E.G.B.-ko 6. edo 7. mailetarako.

Zenbait kenketa egin daiteke $\bar{3}$, 2 eta $\bar{5}$ zenbakiekin. (Bakoitza behin erabiliaz).



Ez zenuen uste, noski, hainbeste zeudenik!


Lehenago esan badugu ere, ez dugu oraingo honetan berresateko oportunitaterik galdu nahi, diagrama honen erabiltze maiztasuna handitzea oso beharrezkoa dugu, «zenbat» galdera motei ederki baino hobekiago erantzuten dielako eta galdera honen erantzunak oso zati inportantea betetzen bait du Matematika barruan.

4. LEWIS - CARROLL diagrama

Diagrama hau oso erabilia da Logikan eta interesgarriak diren zenbait aplikaziotan aztertuko dugu. Diagrama honetan multzoarekin batera bere konplementarioa adierazten da beti; berez diagrama hau VENN diagramaren aldaera bat dugu.



VENN *diagrama*




LEWIS-CARROLL *diagrama*


U, Unibertso multzoa.

A, multzo bat.

A, ez A, A-ko ez diren elementuez osaturikoa.



VENN *diagrama*



LEWIS-CARROLL *diagrama*

Goiko diagrama honek VENN eta LEWIS-CARROLL diagramak nola elkartzen diren erakutsi nahi du; diagrama honetan ez ditugu posibilitate guztiak aztertu, beharrik ere ez dago eta, baina bere aberastasuna erakusteko kasoren bat aipatuko dugu.





Diagrama honen oso aplikazio interesgarria, zenbakien ordenazioa dugu, begira ezazu beheko adibide hau:

A multzoa 2 baino handiago diren zenbaki osoen multzoa dugu, ezA beraz 2 baino txikiago edo berdinak direnak.


B multzoa $\bar{3}$ baino txikiago edo berdina diren zenbaki osoen multzoa dugu, ezB $\bar{3}$ baino handiagoak direnak berriak.

	A	ez A
B	\emptyset	$\bar{3}, \bar{4},$
ez B	6, 7,	$\bar{1}, 0, 2$

Ariketa: koka itzazu ezkerreko diagrama honetan $\bar{3}$, 6, $\bar{1}$, 0, 7, $\bar{4}$ eta 2 zenbakiak.

Egiaztatu A eta B multzo bereziak direla.

Ariketa hau egiteko eta laguntza bezala VENN diagrama aurretik egitea oso lagungarria gerta daiteke.



5. Erlazio baten adierazpena; orain arte ikusitako diagramen aplikazioa

Orain arte azaldu ditugun diagrama guztiek helburu bakar bat bete dute: multzoa adieraztea, hain zuzen; multzoa oinarria badugu, gauza hila da, estatikoa; erlazioak dira bizitza sorrarazten dutenak, Matematikaren alderdi dinamikoa; erlazioen adierazpena biziki interesgarria den gaia dugu, zai dugun baso birjina, aurrera ZAKILIXUT!

Ekinez egiten omen da bidea, saia gaitzen adibideka.

r erlazioa, $A \rightarrow A$

$A = \{1, 2, 3, 4\}$ r : «..., ...ren multiploa da».

r erlazioaren legea modu proposizionalean ulertzen dugu, honek zera csan nahi du: lehenengo hutsunean A -ko elementu bat eta bigarrean A -ko beste bat ipiniaz gero, proposizio bat sortzen dela. Proposizio hori zuzena bada elementu pare hori erlazionaturik dago; proposizioa okerra bada, ordea, ez daude erlazionatuak.

Hona hemen zer izan daitekeen adierazpen ordenatu bat.


Erlazio posibleak	Erlazio zuzenak	Gezi diagrama	Diagrama Cartesiarra
1, 1-ren multiploa da	1, 1-ren multiploa da	$1 \rightarrow 1$	(1, 1)
1, 2-ren multiploa da			
1, 3-ren multiploa da			
1, 4-ren multiploa da			
2, 1-ren multiploa da	2, 1-ren multiploa da	$2 \rightarrow 1$	(2, 1)
2, 2-ren multiploa da	2, 2-ren multiploa da	$2 \rightarrow 2$	(2, 2)
2, 3-ren multiploa da			
2, 4-ren multiploa da			
3, 1-ren multiploa da	3, 1-ren multiploa da	$3 \rightarrow 1$	(3, 1)
3, 2-ren multiploa da			
3, 3-ren multiploa da	3, 3-ren multiploa da	$3 \rightarrow 3$	(3, 3)
3, 4-ren multiploa da			
4, 1-ren multiploa da	4, 1-ren multiploa da	$4 \rightarrow 1$	(4, 1)
4, 2-ren multiploa da	4, 2-ren multiploa da	$4 \rightarrow 2$	(4, 2)
4, 3-ren multiploa da			
4, 4-ren multiploa da	4, 4-ren multiploa da	$4 \rightarrow 4$	(4, 4)

Proposizio zuzen bakoitzak erlazio zuzen bat sortzen du.


8 Proposizio zuzen.

8 Gezi.

8 Bikote.






Erlazio posibleak sortzeko oso egokia dugu ZUHAITZ diagrama.




$A \times A$

Adierazpen hau ondo eta sakonki lantzeko oso beharrezkoa deritzait, egiten den guztia GEZI diagrama kaxkarretan bukatzen bait da; ondorioa denok dakigu, oso arraroa izaten dela gezi baten faltan aurkitzen ez den diagrama bat ikustea, eta gezi honek izaten duen esannahi lañotsua beste aldetik.

Behar bada, erlazio posible guztiak bilatzea latza gertatzen zaio ikasleari, problema hori konpontzeko hona hemen proposamen bat.



Bi leiho dituen kartulina puska bat moztu, ondoren A-ko elementuekin bi paper zerrenda egin.



Kartulinak dituen gidarietan paper zerrendak sartu, ondoren ezkerreko leihotilan lehenengo elementua azaltzen denean, paper zerrenda hau geldirik uzten da eta eskuineko paper zerrenda hasten gara mugitzen.

Denak pasa direnean, ezkerrekoa bat mugitu eta eskuineko guztiak berpasa arazi. Modu honetan jarrai bukatu arte.

33. irudian (1, 4) bikotea adierazten da.

Ikus ditzagun zenbait erlazioen adierazpenak.


5 - a — Barne erlazioak

5-a-1 *Multzo finito arteko erlazioak:*

$A \rightarrow A$: ... handiago edo berdin ... baino.

$A = 1, 2, 3, 4$


GEZI diagrama



A

Diagrama CARTESIARRA

$A \times A$




A

5-a-2 *Multzo bukaezin (infinito) arteko erlazioak:*


$N \rightarrow N$ «... eta ... berdinak dira».

GEZI *diagrama*



4 —→ 4 zuzena
 4 = 4 zuzena
 4 —→ 5 okerra
 4 = 5 okerra


Diagrama CARTESIARRA



5 - b — Multzo desberdinen arteko erlazioak

Adibide gisan 3 m/s. abiadura baten kasoa aipa daiteke, dato honen bidez Denbora eta Luzera magnitudeak gelditzen dira erlazionatuak. Hona hemen erlazio honen adierazpena.

Denbora (segundotan)




Luzera (metrotan)

GEZI *diagrama* (orokorra) multzo artekoa

$$2 \text{ s} \longrightarrow \boxed{\times 3} \longrightarrow 6 \text{ m.}$$

GEZI *diagrama* (partikularra) elementuen artekoa.



$$3 \longrightarrow \boxed{\times 3} \longrightarrow 9 \text{ zuzena}$$

Diagrama CARTESIARRA

$$4 \longrightarrow \boxed{\times 3} \longrightarrow 9 \text{ okerra}$$

5 - c — Barne konposaketa legeak

Barne konposaketa legeak, eragiketak deiturikoak ere, erlazio klase bat dira, eta logiko denez erlazioetarako balio duen adierazpena bera erabilgarria da hauetarako ere.

Hala ere barne konposaketa lege haurk erlazio berezi batzuk dira, zeren eta abiaburu multzo bezala biderkadur multzo bat hartzen dute eta helburutzat biderkagaietariko bat.

Esate baterako batuketa N multzoan holako era honetan definitzen da:

$$N \times N \xrightarrow{+} N$$


Irtera multzoa: $N \times N$
Helburu multzoa: N

Lehenengo Tokian

0 1 2

Bigarren Tokian

0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, → 0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, → 0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, → 0,



$$\begin{array}{l} (0, 3) \xrightarrow{+} 3 \text{ zuzena} \quad 0 + 3 = 3 \text{ zuzena} \\ (4, 4) \xrightarrow{+} 8 \text{ zuzena} \quad 4 + 4 = 8 \text{ zuzena} \\ (3, 2) \xrightarrow{+} 6 \text{ okerra} \quad 3 + 2 = 6 \text{ okerra} \end{array}$$

Egin dezagun kenketari dagokiona.

Lehenengo Tokian

0

1

2


Bigarren Tokian

0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, →

0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, →

0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, →

$N \times N$



$(3, 3)$	→	\emptyset zuzena	$2 - 1 = 0$ okerra
$(3, 1)$	→	2 zuzena	$0 - 3 = \emptyset$ zuzena
$(2, 1)$	→	0 okerra	$3 - 1 = 2$ zuzena

6. Eragiketa konposatuak egiteko eskema

Saila gaitzen emandako azken adierazpen honi jarraituaz eragiketa konposatuen eskema bat osatzen.

Adibidez: $(3 \cdot 4) + (7 - 5)$

$$\begin{array}{c} \downarrow \quad \downarrow \\ 12 \quad + \quad 2 \\ \downarrow \\ 14 \end{array}$$

Zatiketa: $3 \cdot 4 \rightarrow 12$
 $7 - 5 \rightarrow 2$
 $12 + 2 \rightarrow 14$

$$4 + \left[2 + \left[3 \cdot (2 - 1) \right] \right]$$

Zatiketa: $2 - 1 \rightarrow 1$

$$4 + \left[2 + \left[3 \cdot 1 \right] \right]$$

$3 \cdot 1 \rightarrow 3$

$$4 + \left[2 + 3 \right]$$

$2 + 3 \rightarrow 5$

$$4 + 5$$

$4 + 5 \rightarrow 9$

9

Beraz $3 + 4 = 7$ espresioa berdintasun erlazioaren adierazpena dugu eta ez batuketarena, espresioa zuzena ala okerra den jakin ahal izateko hona hemen jarraitu beharko genukeen bide logikoa.

$$\begin{array}{r} 3 + 4 = 7 \\ \downarrow \quad \downarrow \\ 7 = 7 \\ \text{zuzena} \end{array}$$

Pena merezi ahal du hain zehatza izatea? noski baietz, ezin du $=$ markak gaitz guztien botika izan; ikasleak ez daki zer esan nahi dugun marka honekin.

$A = 1, 2, 3, 4$	multzoa	Multzo definizioaren adierazpena
$3 + 4 = 7$		Batuketaren adierazpena
$(3 + 5) \cdot 2 = 3 \cdot 2 + 5 \cdot 2$		Berdintasun erlazioaren adierazpena
$2x + 1 = 5$		Ekuaizioaren adierazpena
$P(x) = 3x^2 - 2x + 1$		Funtzioaren adierazpena

Bai plurienpleo ederra!

Ondo finkatu beharko zen beraz $=$ markaren eginkizuna; ez zait iruditzen, oraingoz bederen, kaso guzti horietan ordain bat proposatzea komenigarria denik; bai, ordea, eragiketen kasoetarako *gezia* erabiltzea eta *idazkera zuta edo bertikala erabiltzea kalkulurako*.

Adibidez: Eragiketa baten adierazpena.

$$\begin{array}{r} (3^2 + 4) \cdot (7 - 2) \\ \downarrow \quad \downarrow \\ (9 + 4) \cdot 5 \\ \downarrow \\ 13 \cdot 5 \\ \downarrow \\ 65 \end{array}$$


Erlazio baten adierazpena.


$$\begin{array}{r} (3 + 4) \cdot 5 > 3 \cdot 4 - 3 \cdot 2 \\ \downarrow \quad \downarrow \quad \downarrow \\ 7 \cdot 5 > 12 - 6 \\ \downarrow \quad \downarrow \\ 35 > 6 \quad \text{zuzena} \end{array}$$

Ez dugu ZAKILIXUT txantxetaz animatu erlazioen baso ezezagunean sartzeko, benetazko iker lana dago arlo honetan, eta hemen azaldutakoa kanpotik begiraturik ikus daitezkeen lehenengo itzalak besterik ez dira; izugarriko anarkia, hitz honen esan nahi ona errespetatuaz, nabaritzen da arlo honetan; ez da logikoki jokutzen, ez ditugu bideak ondo markatzen eta ondorioz ikaslea galdu egiten da bidexka desberdinak ezin jarraituaz, zeren eta ikasleak, zerbait txarra eukiz gero, gaizki erakusten zaizkion gauza guztiak ikasteko erreztasun miragarria dauka, birtuterik gaiztoenetzat.



**SEKSU
HEZIKETA**





EGB II garren MAILAN

I. — HEZKETA HONEN PLANTEIAMENDUA ETA PROGRAMAKETA

HEZKETA honen planteiamendua

BEHARRA: Seksu *hezketaren* garrantzia azpimarratzen ba dugu, ez dugu honekin noski, inongo asmaketa berririk egiten; nahiko aztertua eta arrazoitua dago *hezketaren* honen garrantzia. Geroz eta gehiago, inguru, gizartea, pentsamoldeak zabaltzen ari dira eta banaka banaka, lehen-go zenbait «tabu» eta moldeak erortzen ari zaizkigu. Gaur egun, Seksu heziketaz hitzegitea oso normala da.

Seksu heziketa honen zutabea gurasoen gain dagoela garbi ikusten dugu. Hala ere, eskolak, ba du lan betebeharraren garrantzizkoa ere, eta egin gabe utzi ez dezakeen lana gainera. Sarritan entzun ohi dugu, eskola, «gizonak» egiten saiatu behar duela. Gizonaren alderdi bat da seksua, eta alderdi garrantzizkoa gainera. Motza geldituko litzateke, seksu alderdia aztertu eta planteiatuko ez lukeen pedagogia.



MAILA HONTAKO BEREIZTASUNAK ETA ERAGOZPENAK: Lerro haue-
tara dakargun esperientzia eta planteiamendua, EGB bigarren mailako
ikasle eta gurasoentzako pentsatua dago. Bai Eskolaurrean, bai EGBko
lehen mailan, gehienetan, haurrak andereño edo irakasle baten eskutan
egoten dira, eta seksu alderdia planteiatzeko moduak, ba du noski
bere bereiztasuna, andereño edo irakasle hoi gain bait dago bere
ikasleen hezketa orokorra. Bigarren mailan ordea, irakasle bat baino
gehiago izaten dira ikasle multzo baten hezketan parte hartzen du-
tenak, eta kofiantza giro bat lortzeko, zailtasunak handiagoak dira.
Hontaz gainera, Ministerioaren programak asko mugatzen gaituzte, eta
seksu alderdia ez dute inondik ere sakonki aztertzen.

ERAGOZPEN OROKORRAK: Gizartearen pentsamoldeak zabaltzen ari
direla esan dugu, baina zabalketa eta irekitasun hau ez da bat batetan
etortzen, ez etorriko ere. Aldaketa, geldiro eta denboraren poderioan
gertatzen den gauza da. Honela, gaur egunean, gurasoak, bai seksu, bai
beste zenbait planteiamenduaren aurrean ere, oso zaila zaien ekilibrio
antzeko batean arkitzen dira; bere hezketa zaharra alde batetik (ba
dakigu orain gutxi arteko heziketa nolakoa izan den gai hontan) eta
gaurko irekitasuna bestetik, Gurasoek maiz, zer egin ez dute jaki-
ten eta garbi ikusten ba dute ere bere eginkizuna, ez dira behar den
«naturaltasunarekin» aurkitzen eginkizun hau betetzeko. Uste dugu,
egoera hau, aldatzen joango dela, baina oraindik ere, errealitatea hori-
xe da eta errealitate horrekin jokatu beharra daukagu.

GURE PLANTEIAMENDUA beraz, baldintzapen hauek guztiak aurrean
ditugarik, bi ardatzetan banatzen da: irakasleei begira dagoena eta
gurasoei begira dagoena.

Ikasleei begira, seksu informaketa, «gai» orokor baten barnean
ezarri dugu; 6 eta 7 garren mailako «Natur Zientziaren» programa
orokorraren barnean. Era hontan, gai berezi batek euki dezakeen «mis-
terioa», programaketa orokor baten inguruan, erabat logiko eta «nor-
mala» azal daiteke.

Gurasoei begira berriz, ikasleari aurrea hartuaz, gai berdina eta
mail berdintsu batean adierazten zaie, delako «Guraso Eskola» berezi
batean. Era hontan, gurasoak ba daki zer nolako informaketa emango
zaion bere seme alabari, eta alderantziz ere, seme alabak ba dakite,
bere gurasoak, gai horren jakinen gainean daudela, eta harremanak
errezteko bide bat dela uste dugu.

PROGRAMAKETA IKASLEARI BEGIRA



Programa honen helburuak

Lehen aitaturako arrazoinarengatik, seksu hezketa hau, «Natur Zientziaren» programaketaren barnean sartu dugu. Programaketaren helburuetan beraz, bai *seksu* hezketaren, bai *Natur Zientziaren* beraren helburuak ditugu aztertzeoak.

NATUR ZIENTZIAREN aldetik, helburu nagusiak hauk izan daitezke:

— *Jakintza maila*: Jakintza maila hau, hiru bizitz-funtzio nagusietan ohinarritu dugu:

ERLAZIO FUNTZIOA
ELIKAPEN FUNTZIOA
UGALKETA FUNTZIOA

Funtzio hauen azterketa, GIZA SOINARI buruzkoa izango da batez ere. Gizonaren soina zehatz ezagutzea da beraz, programa honen helburuetako bat.

Honetaz gainera, «Fisika» eta «Kimikaren» ohinarri soil batzuk aztertzea izango da ere beste nahi bat. «Zientzia bateratu» antzeko zerbait izan nahi du, hau da, zientzia hauk, banaturik proposatu beharrean, nolabait ere, lotura eta behar batzuri erantzunaz, Natur Zientziaren arabera adieraztea proposatzen da.

Euskara aldetik, espresabide, itzulketa eta hiztegi baten azterketa lortu nahi da.

Erdera aldetik, eskemaren bitartez, «Memorizazio» minimu batera iritxi nahi da.


— *Asmamen maila*: Maila hau ere ikutzen dugu, axaletik bada ere. Gure iritzian, asmamen (kreatibitate) mail hau, ez da «plastika» gaiean landu behar bakarrik, berez, gai guztietan honelako alderdia kontuan euki behar litzateke, programaketa egiterakoan.

— *Ikerketaren zaletasuna; aktibotasuna; bizitzarekin lotura...* ere aurkitzen dira programaketa honen nahietan.

SEKSU HEZKETA aldetik, lehen aitaturako helburuetaz gainera, hauek adierazi ditzazkegu:

— Seksua, gizonaren alderdi bat gehiago dela ikustarazi.

— Funtzio honen inguruan dauden zenbait jakinbeharrezkoak aztertu (Herentzia,...).



- Zenbait gertakizun eta joera, psikologia alderditik ikusmiratu.
- Programaketa hontan, «moral» alderdia ez da ikutzen. «Informazio» orokor bat bezala planteiatzen da. Moral alderdia ikutzekotan, beste gai eta programaketaren gauza dela uste degu.

Zer nolako adinetarako

Hamabi urte inguruan dituzten neska-mutilentzako zuzendurik dago, hau da, aurre-adoleszentzi batetan sarturik daudenentzat. Beraz, 6, 7 garren Basikako mailetan ipintzekoa litzateke programaketa hau.

Hala ere, programaketa hau, bi eratan antola daiteke:

- 6 eta 7 garren mailetarako, PROGRAMAKETA OSOZ. Era hontan, Jakintza maila eta helburu guztiak kontuan euki daitezke. 6 garren mailean, ERLAZIO FUNTZIOA BAKARRIK. 7 garren mailean, ELIKAPEN eta UGALTZE FUNTZIOAK azter daitezke. Era hau da gure iritzian egokiena. Ikasle-Irakasle arteko konfidantza giroa asko sakon daiteke, irakasle berdinak jarraitzen badu bi mailetan. Beste alde batetik ere, gaiari orokortasun eta osotasun gehiago eman diezaiokegu. Azkenean, UGALTZE FUNTZIOAREN azterketa, erabat normala eta beharrezkoa ikusten du ikasleak.
- 7 garren mailarako litzateke hau. ERLAZIO FUNTZIOA laburtua lehen hiruhilabetean eman behar litzateke. Beste bi funtzioak, bakoitza hiruhilabete batean eman behar litzateke. Era hau, bi urtetako programaketa hau gehiegia ikusten bada edo emateko posibilitaterik ez badago, orduan erabil daiteke era laburtu hau.

PROGRAMA HONEN DESKRIBAPENA ETA ZEHAZTASUNAK

Gaia	Multzoa	Biologia	Fisika	Kimika	Praktikak	Asmarena	Biología	Física	Química	Problemas
B I Z I D U N A K	1	Bizidunen ezaugarriak			Redi-ren esperientzia					
	2	ZELULA —Asmaketa —Zatiak —Garrantzia			Kortxo, tipula ikusketa Protozoo ikusketa					
	3	Bizidunen moldaerak eta harremanak								
	4	Bizidunen sailketa								
	5					Zentzuga- beko galde- ra eta pro- posamenak —hasera —sailketak				
ERLAZIO FUNTZIOA	6	Erlazio funtzioa Mugimen- dua uretan	Newton-en legeak Arkimedes- -en legeak		Arkimedes- -en legeak —bolumen —dentsitate —pisu					
	7	Mugimen- dua airetan	Sakadura Tonnicelli Barometroa		Aire sakadura Airearen pisua					

E R L A Z I O F U N T Z I O A										
Gaia	Multzoa	Biologia	Fisika	Kimika	Praktikak	Asmarena	Biología	Física	Química	Problemas
	8	Mugimendua lur gainean	Pisu-indarra igurtzia		pisu-indarraren erdi-pundua					
	9					Animalien mugimendua aztertu eta tresna berriak asmatu				
	10						Características de los seres vivos Funciones vitales	Leyes de Newton Resistencia del medio Principio de Arquímedes Conceptos de masa-peso gravedad volumen densidad presión		
	11									Presión Densidad Peso Arquímedes
	12	Mugimendua eta eustehunak Hezur ehuna			Hezurren gogortasuna eta konposaketa					

Gaia	Multzoa	Biologia	Fisika	Kimika	Praktikak	Asmamena	Biología	Física	Química	Problemas
	13	Giharre ehuna			Oilo-izterra- ren ebaketa					
	14		Elektrinda- rraren oinarriak		Elektrin- darraren erakarketa voltaren pila					
	15	Nerbio sistema			Kinadak Erreflexioak					
	16	Kanpotiko ezagumena zentzuak ukimena			Hotz-beroa Ukimena					
	17	Usaimena Dastamena			Dastamena Gatza Limoia					
	18		Soinua Kulunkari mugimen- dua		Kulunkari mugimen- dua Frekuentzi norberega- naketa					
	19	Entzumena Ekilibrioa			Kanpoko belarria Erdiko belarria Ekilibrioa					

E R L A Z I O F U N T Z I O A

Gaia	Multzoa	Biologia	Fisika	Kimika	Praktikak	Asmamena	Biologia	Física	Química	Problemas
	20		Argia Elektromagnetikotasuna		Argia Kulunkari mugimendua					
	21	Ikusmena			Begi baten ebaketa Itxuraren norberegaketa					
	22					Mugagabeko marrazkiaren posamena ikasitakoarekin lotu				
	23						Tejidos oseo muscular nervioso			
	24							La electricidad el sonido la luz		
	25						Sentidos tacto olfato gusto oído vista			
	26									El sonido La luz

E R L A N I O F U N T Z I O A

Gata	Multzoa	Biologia	Fisika	Kimika	Praktikak	Asmarena	Biologia	Física	Química	Problemas
	27	Elikapen funtzioa Elikagaiak			Gluzidoak Lipidoak Protidoak					
	28	Liseri aparatua			Listuketa Urdail lis. Estemehar lis.					
	29	Arnasketa		Kimika al- daketaren oinarriak oxidazioak	Sintesis kimika Oxidazioa Birikaren ebaketa Arnasketa- ren modeloa					
	30	Zirkulapen aparatua			Odola Bihotzaren ebaketa Zirkulapena					
	31	Exprezio aparatua			Ikaslearen ardurapean					
	32	Elikapena Landa-reetan fotosintesia		Fotosintesia	Oxigenoa Anidrido karb. Almidoia Ura					

E L I K A P E N F U N T Z I O A

E L I K A P E N F U N T Z I O A										
Gata	Multzoa	Biologia	Fisika	Kimika	Praktikak	Asmarena	Biología	Física	Química	Problemas
33						Ikasitakoa- rekin lotuta; asmaketak modeloak ipuinak jokoak				
34							Los alimen- tos El aparato digestivo			
35							Aparatos: respiratorio circulatorio excretón			
36									Cambios químicos en la respiración y digestión La fotosin- tesis	
37										Dietética Menús Recuento de calorías y principios inmediatos

Gaia	Multzoa	Biologia	Fisika	Kimika	Praktikak	Asmarena	Biología	Física	Química	Problemas
U G A L K E T A F U N T Z I O A	38	Ugalketa funtzioa Zelula Ugalketa landare eta animalietan								
	39	Guruin eta hormonak Ernal apailua jaiotzetik pubertarora								
	40	Gizakumearen eta emakumearen ernal apailuak								
	41	Herentzia bere azterketa								
	42	Ernalkuntzatik jaiotzera —umaldia —erdiketa								
	43	Gaitzak Arazoak Osagarriak								
	44	Gizona eta seksua (psikologija)								

Gaia	Multzoa	Biologia	Fisika	Kimika	Praktikak	Asmamena	Biología	Física	Química	Problemas
GAITZAK	45	Giza soina eta gaitzak Infekzioa Defentsak								
	46	Gaitz bereziak Lehen laguntzak			Lehen laguntzak					
E U S K E R A Z						G A Z T E L A N I A Z				




Programa honen zehaztasunak, hauek izan daitezke:

- Bi hizkuntzetan banaturik dago:
EUSKARAZ: Programaketa osoaren ohinarria, Euskaraz dago noski. 36 multzotan zatiturik dago.
ERDARAZ: Euskaraz emandako gaien laburpena. 10 multzoetan banaturik dago. Eskemak eta Problemak dira gehien bat. Hauek, buruz ikastekoak batez ere. Hiztegia ere lan-tzen dugu.
- Gai osoa beraz, 46 multzoetan banaturik dago. Multzo ba-koitzak, «bere» denbora behar du. Denbora hau, ez da ino-laz ere berdina izango; gaiaren eta ikaslearen egoera eta beharrari erantzunaz, mementuko egoerari erantzungo zaio. Beraz, multzo banaketa hau, ez da «denbora» banaketa, gai banaketa baizik.
- Programaketaren azalpen hontan, gaiak, alderdi ezberdine-tik aztertutak izan dira:

BIOLOGIA
FISIKA
KIMIKA
PRAKTIKAK
ASMAMENA
PROBLEMAK

- Hemen azaldutako gaiak zabaldu eta aztertzeko, BI ikastal-di behar lirateke (6 eta 7 garren Basika). Programaketa la-burtuan, ikutu ezinezkoa derizkiogu 38 - 44 bitarteko gaiak. Besteak, nola ala laburtzekoak izango dira, irakaslearen ar-durapean.



Honeraino, programaketaren azalpena. Lehen aitatu dugun bezala, programaketa hau, ikasleari begira egindakoa da. Ba dago, beste bigarren alderdi bat, gurasoei begira dagoena, alegia. Hezketa honen planteiamendua adierazi dugunean, gurasoaren hezketari garrantzi handia eman diogu. Gurasoentzako ere prestatu dugu programaketa berezi bat, eta azaltzera goazkizue.

PROGRAMAKETA GURASOEI BEGIRA


Programa honen helburuak

INFORMAZIOA: Gurasoek, informazio bat behar dute. Bere seme-alabek erabili eta sakontzen dituzten gaiaren berri jakin behar luteke; are eta gehiago, honelako gai berezi batean. Lan honen sarreran aitatu dugu, hezketa hontan, gurasoek dutela gure iritzian, zatirik garrantzitsuena. Informazio hau beraz, derrigorrezkoa dela uste dugu.

GIROA: Gure helburuetan dago ere, konfiantza «giro» bat lortzea. Informatuaz gainera, gurasoek, ohitura eta lasaitasuna hartzea nahi genuke, gai hauetaz hitzegin eta bere seme-alabekin harremanetan jartzeko, bide errezketa bat alegia. Honengatik, programaketa hau ezin inolaz ere, ikaslearen programatik urrun ibili.

JAKINTZA MAILA: Seme-alabek erabiliko dituzten zenbait gai, ezezagunak izango dituzte eta jakintza mailean sortzen den desekilibrio honetan, ondorio txarrak sor daitezke, famili harteko harremanetan.


Programa honen helburu orokorra beraz, era honetan labur daiteke: Guraso eta seme-alaben arteko harremanak sakondu eta zabaltzeko instrumentu bat izan nahi du, bai batzuk, bai besteak ere, nortasunez bere bizitzako helburuak batetzen joan daitezten.



Programaren gaiak

(Ikus Ikaslearen programa, 38 - 44 multzo bitartean)

- * UGALKETA FUNTZIOA. ZELULA
UGALKETA LANDARE ETA ANIMALIETAN
- * GURUIN ETA HORMONAK
- * GIZAKUMEAREN ETA EMAKUMEAREN ERNAL APARATUA
- * HERENTZIAREN AZTERKETA
- * ERNALKUNTZATIK JAIOTZERA. UMALDIA. ERDIKETA
- * GAITZAK, ARAZOAK, OSAGARRIAK. GIZONA ETA SEKSUA



euskara. gure ikas- leak eta ir- akurketa.

Egia garratza, baina egia ikaragarria zera da: gure hurrek ez dute zaletasunik Euskaraz irakurtzeko. 10-13 urtetako hurrei begira esaten dut hau.

Gauza honen zergatia sakontzen hasiko bagina, aurkituko genituzke zenbait arrazoi.

Adin berean eta haur berberak ikusten ditugu, bestalde, hatzaparka T.B.O. eta erdal irudidun nolanhiko irakurgaiekin.

Gure haur horiek ikusten ditugu, buru-belarri, telebistako ergelkeria hamaika, zozo-zozo, irensten.

Kaletik datozen ikasle horiek ikaragarritzko zailtasuna dakarte Euskara irakurtzeko.

Dendak, kioskoak, eta herriko zulo bazterrak, erdal kutsudun irakurgai, txartel eta abar begititik pasa dituzte.

Guregana datorren ikasle hori, erdarak zirpildutako ikaslea da. Nahiz, txiki-txikitatik Ikastolan ari izan. Zenbait guraso (denak ez), Ikastola, eta abarrek nolabait, ahalegin bizian, euskaldun era artifizial xamarrean mantendu ahal izan duten produktoa.

Ikasle horrekin, Ikastolako prozesu guztian irakurketa aldetik, zer egin adieraztea izango litzateke gauzarik egokiena. Ekite hori, askoren zeregina denez gero, eta neu hori egiteko gauza ez naizenez gero, azaldu nahi nuke, alor hontan egin ditugun saiakera batzuk. Ona edo txarra, Ikastola batetan egin den froga bat besterik ez da. Eta beste edozeinek zer eta noiz eman-go lukeen hontaz gehiago deseatzten duen batena.

SAIAKERA HAUEN HELBURUA

- 1.— Irakurtzeko zaletasuna sortu (idazteko ere bai).
- 2.— Hiztegia aberastu.
- 3.— Esaldi jatorrak bilatu.
- 4.— Hizketa arruntean esan ohi dituzten akatsak zuzendu.
- 5.— Irakurketa posizio kritiko batez egin.
- 6.— Irakurketa hori laburtzeko kapazitatea lortu.
- 7.— Sensibilizatu gauzetara, koloretara, mogimenduetara, formetara, konparaketara... Hitz batetan: zentzuak kaptatzen duten gauzetara.
- 8.— Izen-lagunak, epitetoak, literatur irudietan fijaerazi. Narrazioak, deskripzioak, elkarrizketak... komentatu.
- 9.— Gramatikako edozein teoria ikus dezatela praktikan.
- 10.— Ikasleen aktibotasuna eta partizipazioa.

ARAZOAK

Euskarak, praktikoki, ez du Literatura infantillik. Egin diren T.B.O. eta liburuak arrunt gutxi dira.

Ahaleginik sakonenak hauk dira:

GERO — Kimu Saila.

IKER, S. S.

CINSA.

ETOR, Editoriala.

IKASTOLAKO LIBURUTEGIA.

Egin diren T.B.O. eta batez ere liburu gehienak, euskara zailegian egin dira. Euskararen batasunari eta hizkuntzaren aberastasunari gehiago begiratu diote haurrari baino. Ikasle askok eta askok ez dituzte ulertzen zenbait esaldi, hitz, aditz sintetiko, eta abar...

Nere eritziz, behar-beharrezkoa da, adin hortako liburuak, hizki handi xamarrean, marrazki ugariz eta euskara errazan argitaratzea.

Ikastoletako irakasleak hauzi bizian aurkitzen gara, ez bait dakigu haurrari ze liburu gomendatu. Guraso batzuk etortzen dira galdezka. Erantzun bezala oso aukera txikia izaten du irakasleak adierazteko: Kimu Saila, Ikastola Liburutegia, Irakur I-II-III-IV, eta besteren batzuk... eta kitto!

Bestalde, gure inguruan erdarak duen arrakastak dena errausten du. Gure inguruko kiosko eta liburu-denda bazterrak, haurrentzat T.B.O. eta nobela eskainiaz.


Hori soluzionatzeko, T.B.O., ipuin, nobela egitea, eta erdal liburu T.B.O. eta abar itzuli eta argiratzea litzateke bide egoki bat. Zerbait egin dute batzuk. Askoz gehiago behar da. Hori egiten ez den artean, irakasleak behartuak gaude, dezakeguntzua gogo biziz egitera.

ZER EGITEN DUGUN PRAKTIKAN ZALETASUN HORI LORTZEKO

Hemen esango dugun hau, esperientzia bat besterik ez da, beste askoren tartean. Fruituak onak ala txarrak eman dituen galderari, zera erantzungo nioke: modu asko izanik zaletasun hori lortzeko, gure hontan, aurrerakada interesgarria izan dela eginkizun hortan.

Hara nola

Jar gaitezen gela barruan. Lehenengo lan bezala irakasleak liburu sail bat eramango du gelara. Ahal duen ugariena.



LIBURUAK

Ikasleek, liburu horietatik nahi dutena aukeratuko dute. Hortan irakasleak lagundu behar die, liburu horien berri emanaz.

Nik hemen izendatzen dudan liburua, haiek aukeratua izan zen. Eta gerora ere, oso atsegin izan zaiela aitatu dute:

SENDAGILE MALTZURRA


Lourdes Iriondorena. Liburu hau, talde batek bere gain hartu zuen. Hain zuzen, bost neska ziren. Bost neska hauen lana zera izan zen:

1. — Prestatuta gero, antzerkia gelan antzestu zuten. Lauek bere pertsonaia errepresentatzen zuten. Noski, bakoitzak liburutik irakurtzen zuen bere gauza, aulkietan eserita, antzerki baten mogimendua eta horrelakorik gabe.
2. — Bostgarrenak arbelean jartzen da zenbait gauza adierazteko. Adibidez: hitz ezezagunak direnean, berak ipintzen du hitz hori eta bere esanahia. Gelan dauden entzuleek, ikasleek, bere blokean apuntatzen dute ez dakitena.
3. — Bostgarren horrek, hitzetatik aparte, azaltzen diren esaldi jatorrak, izen-lagun interesgarri eta abar jartzen ditu harbelean, ikasleek bere gustokoak aukera ditzaten.
4. — Ikasleek ere irakurketa moz dezakete bere gustoko esaldi, epiteto, konparazio eta abar azaltzen direnean.
5. — Zenbatetan, azaltzen diren erdal hitz edo erdizkako esaldi ere anota-tzen ditu, haiek zuzentzen saiatuaz.
6. — Entzuleek, harbela aurrean dutenez gero, han azaltzen direnetik gustokoenak aukeratzen dituzte.
7. — Irakurketa bukatu denean, taldearen kritika etortzen da. Azaltzaileek farre gehiegi egin baldin badute, ondo ala gaizki irakurri badute, sendoegi ala isilegi irakurtzen zutelako, hitz asko harbelean jarri gabe geratu direlako. Esaldi edo beste edozer gauza interesgarri ere jarri gabe geratu direlako.
8. — Eraberean osaketa labor bat egin ohi da batak jarri duena eta besteak jarri duenaren artean.
9. — Zenbatetan gertatzen da, ez harbelekoek eta ez ikasleek ez dutela esaldi jator bat edo beste hartzen. Orduan, astunegia egin gabe noski, irakasleak erne egon behar du laguntzeko.

Guzti hori egin dutenean, egun jakin bat ipintzen zaie, garbian, txukun jarri, ordenatua eta abar irakasleari emateko.

Eraberean, ondo derizkiot ikasle bakoitzari, liburuari buruz bere iritzia eskatzea. Eta mamiaren laburpena.

Beraz, horrela egindako lan bat, honelakoa gerta daiteke:



Sendagile maltzurra

Mamia: Maria, Perurekin bizi zen etxe handi batetan. Pozik bizi zen hasieran. Baina gerora tristetzen hasi zitzaigun. Eta ohean gaisorik gelditu zen. Hala zegoelarik Mendigarai sendagileari deitu zioten.

Egia esan, ez dago gaisorik, bakarrik sendagilearekin egon nahi duela, senarrarekin erabat aspertua dagoelako.

Baina Peru senarrak benetan gaiso dagoela uste du. Horrela, bakarrik egon ahal izateko, Gasteizera bidali nahi dute, sendagai baten bila.

Sebastian morroiak ordea, zerbait daki eta nagusiari ez joateko esaten dio eta espiatzeko bi haien jokabidea. Elkarrekin egotea besterik ez dutela nahi, alegia. Berak zioena egia zela baieztatzeke, morroiak apustua egiten dio nagusiari.

Hain zuzen, sendagilia etortzen da Mariarengana. Festarik handienez daudenean, ateratzen da Peru gordelekuetik. Bidaltzen du sendagilea. Peruk emaztearen jokabide hura ez du sinistu nahi eta bere hitz goxoz engainatzen uzten da.

HITZ EZEZAGUNAK

— alproja	= zakarra, tranposoa	— urratsak	= pausoen seinaleak
— maizterra	= inkilinoa	— froga	= prueba
— miatu	= begiratu	— errak	= esan zak
— mokoiloa	= moskorraldia	— agerraldia	= eszena
— babo	= tonto	— muturreraino	= leporaino
— txepela	= bildurtti	— zakutoa	= zaku txikia
— jipoia	= paliza	— ohorez	= onorez
— hozki	= era hotzean	— petrikillo	= sasi-mediku

IKASLEEN GUSTOKO ESALDI JATORRAK

- Oso adiskide mina zen.
- Hegoak moztu beharko dizkiot.
- Bart harrapatu zenuen mokoiloarekin.
- Hatzaparren artean puskatuko haut.
- Kristoren jipoia hartuko dukala.
- Zure edertasun paregabearen ohorez.
- Dantza horrek zintzurra lehor utzi dit.
- Horretarako zara zu nere adiskiderik minena.
- Etxe hontan ez da sekula ezer gertatuko.
- Hemen egon behar azitarako usteltzen.
- Egun guzti hauetan zurekin ametsetan jardun dut.
- Lau begik bik baino gehiago ikusi ohi dute ta.
- Hain da bihurria nere emaztearen eritasun hori.
- Zeinen galai prestua.
- Euri zaparra honen azpian zearo blai geldituko naiz.
- Utzi bazter batera inguru minguruak.
- Egunen batean jipoi bat emango diot.
- Nere onetatik ateratzen nau.
- Mintza hadi klarki.

Gustoko hitzak

— Asperanka.	— Izen bitxia.
— Zuhurra.	— Sutua.
— Mutil kozkor.	— Urde zikina.
— Babo arraiua.	— Erne.
— Zozoa.	— Lehuna.
— Lehiatsu.	— Mutil inozo.
— Zoro arraioa.	— Doakabea.
— Zoragarria.	— Txarto.

Iritzi kritikoa

Oso polita. Farre asko egin daiteke. Esakun oso politak. Erraza ulertzen. Pertsonaia gutxi baina ondo zatituak paper guztiak. Hitz batzuk zail xamarrak ulertzeko. Oso intxantea ipuina.

Taldeak ondo azaldu du. Hitz ezezagun guztiak azaldu dituzte. Noiz-behinka farre egin dute beharrik gabe. Ondo prestatua ekarri dute.

Bukatzeko

Gauza guzti hau, tajuz eta egoki egin ahal izateko, beharrezkoa da liburu ugari izatea. Liburu horiek Liburutegian egon daitezke. Gelan azaldu dena ere han egongo da, lana txukun egiterakoan nahi duenak begira dezan.

Beste euskal liburu guztiak ere, han egon beharko luteke. Dugun hori hain urria izanik, ez dezagun hortan behintzat dirurik aurreratu. Zaletasun horrek aurrerakada izan nahi badu, jar ditzagun Liburutegian diren Euskal Literatura infantilleko liburu guztiak. T.B.O.ak barne. Haur beraien lanak ere, zuzenduak noski, han jar ditzagun.

Lan hau, ia ikasle batek egin zuen bezala eskaini dut. Ikus daitekeenez, askoz aberatsagoa egin daiteke. Irudi literario aldetik, akatsak zuzentze aldetik, narrazioak, deskribzioak eta abar...

Dena dela, ez dezagun perfekzionismo gehiegikeriagatik ikaslea asper-tu. Urte buruan irakurketa asko egiten dira, eta geri ere egin ditzazkegu hemen falta diren gauzak.

GURE IKASTOLAN EGINDAKO INKESTA BATEN LABURPENA

Haurren kursoa: 8 basika.

Adina: 13-14 urte.

Haur inkestatuak: 53.

GALDERAK:

Ze irakurtzen duzu euskaraz?

T.B.O.ak	33
Egin	36
Zeruko Argia	24
Ipuinak	41
Nobelak	17
Deia	15
Goiz Argi	6

Ze irakurtzen duzu erdaraz?

Periodikoa	40
T.B.O.	45
Nobelak	42
Kirolak periodiko	33

Zenbat irakurtzen duzu?


	<u>Euskaraz</u>	<u>Erdaraz</u>
Asko	—	33
Erdizka	22	17
Gutxi	30	3
Batez	1	—

Ze erdal liburu nahi zenituzte Euzkaraz ikusi?

- Los cinco.
- Mortadelo T.B.O.ak
- Zipi Zape
- Nacida inocente
- Asterix
- Diario de Ana Franc.

OHARRAK

- Ohar hauk gure irakurketa aldetik gidaritza bat izateko egin genituen.
- «Antxo Gartzreiz», «Eneko Aritza», Sendagile maltzurra» ez dituzte sartu, gelan irakurritako liburuak direlako. Lehen esan dut, «Sendagile maltzurra» asko gustatu zitzaieela.
- «Antso Gartzreiz», «Eneko Aritza», ere gelan irakurri genituen. Gustatu zitzaizkien, baina zaila egiten zitzaien ulertzea.



I. — HITZ AURREA

Hamaika aldiz entzun dugu, entzun beharko ere, nolako inportantea den haurrentzat joku librea. Danok hortan erabat ados gaude. Baina nola egin genezake hori gela batetan? Nolaz utzi 35 edo gehiago haur beren erara jolasten izan ohi ditugun gela ttipi horietako batetan, gogoan harturik, gainera, gehienetan materialen eskasian gabiltzala?

Guk egindako esperientzia hogeita hamabi haurrekin, beraiek hiru urtekoak, egina da. (17 mutiko, 15 neskatxa). Danak normalak, itxuraz behintzat. Bat bakarra lehendik lilitegi batean izana, beste guztiak beren lehendabiziko urtea zuten eskola batean.


Haur hauen ametatik %18,3 lan egiten zuten etxetik kanpo. Aiten lana era hontan banaturik zegoen:

- % 3,1 entpresari
- % 6,2 profesio liberalak
- % 6,2 merkatari
- %22,7 enplegatu
- %61,8 langile berezitua

32 haur horietatik zortzik eragozpen franko zituzten euskaraz mintzatzeko.

Gelan andereño bat eta laguntzaile bat ziren. Andereñoak laugarren urtea zuen aurrekolan baina 3 urtekoekin sekulan egon gabea. Laguntzailea ez zen sekulan aurrekolan egon.

Mozkin ekonomikoak eskasak. Gelak 45 m² zituen. Haundia zela esan genezakeen. Gela haundia zela segituan jabetu ginen baina... haurren beharrek gogoan harturik, nola antolatu gela hura? Hona nola egin genuen:



Genituen diruak honela gastatu genituen:

- mahaiak: Trapezio formakoak erosi genituen. Forma konposaketa asko egin liteke eta.
- aulkitxoak.
- moketa sintetikoa (4 x 3 m). Baldosa oso otza bait da haurrak lurreran jolasean ibiltzeko.
- harbela (1 x 2 m) haurren garaieran jarria.
- apalak, materiala jartzeko. Mahai batzuekin mahai luze bat egin genuen jostailuak ipintzeko.

II. — JOLAS TXOKOAK

Zer jolas tipo edo zer jolas leku jar genezaken gelan?

1. — URA ETA HONDARRA komenigarriak iruditu zitzaizkigun bainan gelaren txukuntasuna gogoan harturik pentsatu genuen hobeago izango litzatekela biak gelatik kanpo jartzea. Haurra, bere lanetan, asko zikintzen da, zikindu behar da, noski; baina inguratzen duen giroa txukuna izatea beharrezkoa iruditzen zaigu, hezketa on baten barruan.

2. — SUKALDE TXOKOA: Oso interesatuak egoten dira txoko honekin. Jatea «haundia izateko» gogoan bait dute haurrek.

Materiala: mahai bat / mantal ttiki bat / kartoizko kaxa bat, bertan sukalde bat margoturik / garbitzeko balde bat / igali kaxa bat, apaltzat, ontziak jartzeko / ontziak / erratza / bilgailua / zapi bat.

Ekintzak: Inork ezer esan gabe, haurrek berak asmatzen zituzten ariketaak: eltzeak garbitu, jan, gatz botata, janariak prestatu...

Gero, guk motibatuz: mandarinak, laranjak zuritu, ixurkia atera; galletak gurinakin jarri, gela guztiarentzat ere esnea kakaorekin egin; plastilinazko janariak...

3. — PANPINEN TXOKOA: Panpinak direla medio haurrek beren sentimenduak projektatu eta adierazi ahal izaten dute. (Zenbaitetan gehien ezagutzeko laguntzen digutenak).

Materiala: Haur kotxea / jaboia ontziarekin egindako seaska bat / hiru panpin, maindire, buruko eta mantak, kolore desberdinetakoak / biberoiak / jantziak / garbiketako tresnak.

Ekintzak: Asko ta asko, derriorez: panpina esnatu, panpina garbitu eta jantzi, paseatzera eramanez, bazkaria eman, egur on bat eman.

Haurrentzat hau izan da txokorik atseginenetakoa. Bai neska eta bai mutilentzat, noski.

4. — EGON GELA: Panpinaren txokoaren ondoan jarri nahi izan genuen lasai eta patxaran egoteko leku bat.

Materiala: Mahai bat / aulki batzuk / telefonoa / aldizkari batzuk / ipuiak.

Ekintzak: Ipuiak ikusi eta telefonoz elkarrizketa imaginarioak eduki, izan da haurrek gehien bat egiten zutena.

Txoko hau sarritan bi edo hiru haurrekin hizkuntza ariketak egiteko erabiltzen genuen, txoko honi beste bizigarri apur bat ematearren.

5. — **IZADI MAHAIA:** Haurren naturzaletasuna lantzeko asmoz dortoka bat eta landare bat ekarri genituen, errez zaintzen bait ziren. Haurrek segituan hasi ziren harriak, osto lehorrak, makilak, loretxoak, pinaburuak eta abar ekartzen.

Ekintzak: Gauza hauk aztertu, lehortu, bildumatu... egin genituen. «Collage»ak ere egin genituen. Matematika ariketak: ostoen multzoa, harrien multzoa, loreenak... Babarrunak ernetzen jarri. Loreak erosi eta uretan jarri...

6. — **JOSTAILU DIDAKTIKOEN TXOKOA:** Izen honekin formak, koloreak, neurriak, osotasuna, zatitasuna eta abar ikasteko erabiltzen diren jostailuak adierazi nahi ditugu. Jostailu hauk gero eta gehiago aurkitzen ditugu nonahi. Oso garestiak izaten dira eta gehiengotan zaila izaten da aukeratzea.

Materiala: koloreak eta neurriak bereizteko: Arraultza, Dorrea, etab.

Formak bereiztu eta identifikatzeko: Enkajeak.


Manipulatzeko: Tornilloak / Bolak (15 mmko. diametrokoak: gorriz, horiz, urdinez eta orlegiz margoturik) / Botoi batzuk zapi batzutan josirik, lotu eta askatu zitzaten / «tablex» zulatua josteko, etab.

Arreta, sozializazioa eta oharmena lantzeko: «lotoak» eta «puzzle» errazak (3 edo 4 pusketakoak). Etxegintzarako jostailu batzuk bagenituen ere baina oso garestiak ziren eta haurrek asko behar dute. Arotz batek emandako egur koxkor batzuekin osatu genuen txoko hau eta, egia esan, diferentzia haundirik ez dago egur koxkor horien eta dendetan saltzen dituztenen artean.


7. — **GARAJEA:** Hiru urteko hurrei gauzak bultzatu, sartu, atera, tiratu, eta herrestan ibiltzea asko gustatzen zaie. Horregatik garaje bat jartzea pentsatu genuen.

Materiala: Berebilak / Igali kaxa bat, soka batez loturik, herrestan ibil zezaten / lurrean marra batzuk, kotxeak aparka zitzaten.

Ekintzak: Kursoan zehar zenbait zirkuito sortu genituen denen ideak harturik, beren bideargi, pasabide, ixtripu eta iskanbila guztiekin.



8. — MARIONETAK: Zerbaitek liluratu badu 3 urteko haurra, marioneta izan da.



Materiala: Marioneta batzuk / Korta bat, txoko batetan.

Ekintzak: Marioneten bidez egin genituen hizkuntzako ariketa gehienak. Igandetan egindako gauzak kontatu. Ipuiak kontatu. Gertakizunak antzeztu: haur bat gaxo egon dela...

9. — ETXETXOA: Ikastolara estufa berria ekarri zigutenean, haren kaxa botatzeak pena eman zigun. Harekin etxetxo bat egin genuen.

Materiala: Kartoizko kaxa haundi hura / «Airon-flix» margo desberdinetakoa leihoak eta abar egiteko / Kartoizko gorra teilatua egiteko eta kaxa indartzeko.

Ekintzak: (Hurrek txoko hontan pasatzen zuten denbora luzea). Bertan gordetzen ziren. Han jasotzen zituzten bere jostailu eta gordailuak / Asaltoak egiten zituzten / Beren lagun bixitak hartzen zituzten, bertan ez kabituarren.

10. — TRASTU ZAHARREN TXOKOA: Gelaren txoko batetan kaxa bat jarri genuen trastu zahar, zapi zahar eta abar gordetzeko.

Trastu zahar haiekin: kotxeak, itxura aldatzeko jantziak, kargak, deskargak eta abar asmatu zituzten.

Txoko hau ere oso atsegin izan zuten hurrek.


III. — KONKLUSIOA

— Kursoan zehar gelan egin diren ekintza guztiak txokoetatik sartuak izan dira. Norbaitek landare bat ekartzen ba zuen bere txokoan bizi izaten ginen eta txokotik lan egiteko gaia ateratzen genuen.

— Txokoaren eraketa zaila izan daiteke baina inoiz ez ezinezkoa. Ba dira hamaika posibilitate: apalak, mahaiak, (bionboak)... Imaginazio lana izaten da batez ere. Nolanahi dela, guk suerte handia izan genuen, gelak haundiak bait ziren.

Badakigu ere beste eskola batzutan bi edo hiru gela antolatzen dituztela txokoekin, handikan txandaka haurrak pasatzeko. Ordu problema dakar honek, baino merkeago ateratzen da. Egitura hau zenbaitentzat interesgarria izan daitekeenez jartzen dugu.

- Haurrak bere jokuetan oso mugatuak azaldu zaizkigu, beti bere borroka eta tiroekin. Normalean ez genituen joko mota hauk moztzen, baizik eta denbora batetan utzi ondoren, danok elkarrekin «pakearen pipa» erretzen genuen. Joku mugikorrak antolatuarren, borrokak eta tiroak noiznahi sortzen ziren.
- Ikastaroaren lehendabiziko hilabeteak izan ziren zail eta neketsuenak, haurrak ez bait zeuden gauzak elkarri uztekoan, ezta ere zain egoteko prest. Denak dena nahi zuten une batetan.
- Esan dugunez, haur batzuk zailtasun haundia zeukaten euskaraz mintzatzeko eta bere artean taldetxoak sortzen ziren erderaz mintzatzearren. Gutako batek saiatu behar zuen bere jokuetan onartua izan zedin eta euskarazko esaerak sortzearren. Honekin problema ez zela konpontzen konTURATU ginen eta hurrengo kurtsorako beste antolaketa batetan pentsatzen ari gara.
- Jostailuak biltzea (beti gelan sakabanaturik) gertatu zaigu matematikako ariketarik onenetakoa: txoko bakoitzeko jostailuak = multzo bakoitzaren multzokiak. Azken hilabeteetan parte hartzen zuen biltze hontan, hasieran guk bakarrik egin behar izaten genuen.
- Esperientzia honek bere aurrerapen eta atzerapenak izan ditu, jakina nolana delo ontzat hartzen dugu eta hontan jarraitzea pentsatzen dugu ahal dugun neurrian aberastuaz.



espresio bideak urratzen

Ipuin baten bidez gaiari ekitea litzateke behar bada biderik egokiena bainan, oraingoz behintzat ipuin eta marrazkiak, antzerki eta musikaldiak gure gogoetan gera beharko dute, ez bait da nere asmoa lan edo artikulua kreatibo bat egitea baizik eta hitzaren bidez, bai, hitz hutsaren bidez eskoletako espresio bidea munduan sartzea alegia; sarrera gisan (hurrengo zenbakietan jarraitzeko asmoz) espresioari buruzko zenbait gogoeta azaltzea besterik ez litzateke izango oraingo idazlan honen helburua. Hala ere garbi utzi nahi nuke, beharrezkoak iruditzen zaizkidala erreflexio orokor batzuk egitea, gero-rako uzten ditudan esperientzi eta proposamenak garbiago ulertuak izan daitezten.

Zer ulertzen den PLASTIKA hitzarekin

Gaur egungo eskoletan Plastika gaia ematen den eran, zera hau ulertzen da: «Eskulan bideetatik abiatuz gero, paper margo eta buztina landurik ikasleari kreatibidade espezifikoko bat eskeintzea ikasketaren konpletagarri bezala eta artistikoko bideetatik jabe dadin».

Pentsatzen da, ikasketa mailan, matematika zientziak eta abarrek leku zabal eta oparo bat betetzen dutela, eta giza-hezketak dudarik gabe, kreatibidade mailan ere landua izan behar duela. Honoko hau ez da sekulan zalantzetan ifini eta are gehiago ez da inoiz garbiki esan zein izango litzatekeen nagusiena, garrantzia aldetik: jakintza ala kreatibitatea. Honela bada, irakaskintza plan guztiak nolabait saiatu dira haien programaketetan espresioari bide edo atal bat ematen, irakaskintza hotzegia gerta ez dadin eta milaka hitz liluragarri eta justifikagarriekin (teorian behintzat) bide batez progresismo bat azalduaz.

Egia da bestalde, teorikoki, guzti hau onartzen bada ere, gaurko zibilizazioa erabat dominaturik aurkitzen dela, bai zientzi eta bai funtzionalismo aldetik eta kezka txar honekin, mundu guztia saiatzen dela errealitate hau estaltzen milaka «artilujio» erabiliaz egia estali nahirik.

Istituzio mailan, eskola da dudarik gabe gai honetan gehienik saiatzen dena, bere programetan %15 edo... espresio bideei eskeiniz eta hontarako bestalde, preparazio bereizirik eskatu gabe eta nolabait ere marjintuaz... prestakuntza eskas bat eskainiaz eta zulo betetzailerik bezala. Bestalde material ximpleak erabiltzea nahikoa dela, azterketak egitea (ikerketak) ez omen zaio inori bururatzen, nolabait haur bakoitzak nahi duena egitea delako helburua eta erresultadoak erabat zuzenduak azaltzea eta lantzea li-



tzakelako azkenik Plastika gaiarekin egin behar den guztia, teknika sinple eta inprobisatu batzuk erabili eta ondo pasatze hutsa (errekrea) argumentazio praktikoa bezala. Hau da beraz irakaskintza maila guztietan eta errealitatean plastikaz zer ulertzen den. Ez dut honekin esan nahi material egokiak ez daudenik, liburu ederrak ez daudenik (argazkiz orrituak eta guzti) eta egitan irakasle asko hontaz kezkatu-rik ez dagoenik... baina ez dezagun zalantzetan ifini espresio bideak erabat marginaturik aurkitzen direla, bigarren edo hirugarren maila batetara bazterturik, bai eskolan eta zer esanik ez, elkartean.

Bukatzeko esango nuke, eta hau oso grabea deritzat: haurraren frakaso edo exitoa zientzi mailan bakarrik neurtzen dugula denok, egia da letra aldetik ere orain exigentzia parekoi batzutara irixten ari garela, bainan ez gaitu sekulan kezkatzen, iniziatiba gabeko haurrak («alarmante» bezala behintzat) kreatibidade gabeko haurrak, autodidaktismorik gabeko haurrak... bizitzarik gabeko haurrak... hau egia da eta egia garratza gainera. Elkartek nahi duena egiten du bere elementuekin (hortarako prestatu ditu bideak... reproduzio bideak) eta matematika sudur puntan jartzen dion bezala, norbaitek (aurrerakoienetakoak) kitarra edo ta pintzel bat jartzen dio sudur muturrean... errespeto... giza-errespeto falta osoarekin... pertsona numero bihurtuaz... (kitarra edo ta txistu eta guzti ere).

Zer kritikatzten den

Momentu honetan kritikatzten dena ez da soilik eskoletan zer eta nola ematen den baizik eta eskolan planteiatzen diren bide aurrerakoiak. Elkartean ematen ez badira, bide hauk egokiak izanarren gelako horma barruetan geratzeko arriskutan erortzen direla. Hots: gerta daiteke, eskola batetan plastika edo espresio bideak oparo lantzea edo eta irakasle batek esperientzia interesgarriak egitea, bainan nola, pauso horik elkartean, kalean edo beste instituzioetan ematen ez diren, hasieratik antzaturik geratzen direla eta erresultado polit batzuk

besterik ez direla izaten. Eskola mugimenduarekin batera, eta are gehiago eskolaren mugimendu aurretik, elkartek eman behar dituela lehen pausoak, irakaskintza kontsumo hutsean gera ez dadin eta kreatibitatea elkartean behar bat izan dadin. Eta ez eskolak ezartzen duen programazio hutsa. Bai Museoak, bai esposizioak, telebista eta honelako bideak... erabat desfasatuak eta desegokiak bihurtzen dira,



beren didaktika erabat isolatua delako eta eguneroko behar eta dinamikarekin ez direlako lotzen. Eta kezkatzen hasiak badira ez behar erreal eta konsziente batengatik eskolak beharturik baizik. Museoak hontan atzerakoitasun izugarri bat eskaintzen dute. Kontenplazio hutseko mundu espresibo batetara eramán gaituzte eta elkartean pasibotasun kreatiboa beldurgarria da... Espresioa ere konsumitu egiten bait da.



Herri batek bere identifikapenaren atzetik badihardu (Euskadik a.b.) kreatibitate pertsonal eta kolektiboari ate guztiak ireki behar dizkio bere errealitateko ekintza guzti guztietan, bai politiko, ekonomiko... kultural... eta abarretan, inolaz ere modeloak aldeztu aurretik onartu gabe. Eta herri bezala identifikapen bat izan duenean... bide hoietara joaz abialeku bezala. Logika faltsuari jaramonik egin gabe eta eguneroko errealitateari logika eta kreatibitate pertsonal bat bilatuaz. Hau da, noski gaur egun, gertatzen ez dena eta inork, seriooki planteiatzen ez duena. Behar bada superbibentziaren ideia oker batetan gabiltzalako maila guztietan eta arriskurik ez dugulako korritu nahi... emandako guztia (aukeran badago hobea) onartzeko prest gaudelako eta gure aukerak asmatzeko lain ez geraldako.

Nork eskaintzen du gaur egun partizipazio erreal bat?

Nork eskaintzen dizkio haurrari bere kreatibitatean lantzeko bide, aukera edo posibilitateak?... Ez ahal da absurdua irakaskintzan izugarritzko metodo politak asmatzea eta praktikara eramatea, eskolatik kanpo praktikara ezin badira eramanean, elkarrekin funtsean ez baditu ulertzen edo ta egiazki espresio bide horik marginatzen baldin baditu? Non ari gara geratzen irakasleok gure marrazkilari trebeekin, gure antzerki politekin, gure ipuin eta abesti goxoekin? Ez ote gara geu ere gure lana eta esperientzia isolatzen ari, ebaluazioetako erresultadoekin (oso onak noski!) konformatuaz eta espresioaren falta izugarri hori salatzen gabe? Ikastolek hasiera batetan bere abesti dantza eta jokoekin eskaintzen zuten ire-

kitasun hori ez ote da erabat ikastola barruan gelditu orain? Nor kezkatzen da benetan gure hurren kreatibitate falta izugarri hortaz?... Ate asko jo beharrean gaude... baina ez gure programaketa eta orduetan bakarrik, baizik eta eskal errealtatearen atzetik dabilzan etxe guztietan, gure lanak fruitu izan dezan eta ikastolak ere errealtate sortzaile batetan parte bizia har dezan... Eta kontu izan dezagun! txapelketak, azalpenak eta honelakoak gero eta urriagoak izango direla. Benetan, kreatibitate lan eta giro bat lortzen ba dugu eskola inguruan eta gu geu ere kreatibitate bideetan abiatzen bagara; (ez naiz ari plastika arlotaz bakarrik hitzegiten) zeren eta kreatibitatea arteari loturik bakarrik ikusten badugu, oker gabilta.

Eskolako programa eta eraketan beraz zer den kritikatzeko dudana:



1. — Plastika eta espresio bideen aislazioa:

Programa osoa klasifikaturik dagoenez eta gai bakoitzak bere zulo berezia duenez gero, espresio bideak ere klasifikazionismo edo ta «asignaturismo» hau sufritzen duela gehieneik, bere helburuarekin kontraesan batean sarturik. Espresioak (era guztitakoak) ezin du beraz klasifikapen eta aislazionismo hau onartu (klase, ordu, nota, mugak...) eta bide batez eskolak eskaini behar duen dinamika baterakoi bati erantzun behar diola. Eskolaurrean globalizazio batean bagabilta, eta adinean aurrera doazen eran globalizazio hori baztertzen delarik, espresio bideak dira gehien sufritzen dutenak beste gaietaz urrutiraturik.



2. — Gai marjinalak:

Aktibitate paraleloak dira, zulo betetzailerak, larunbatetako programak betetzeko, kanpora begira eta gurasoen aurrean itxurazko azalpen eta jaialdiak egiteko. Bigarren mailako gai bezala, eta dudarik gabe irakaskintza mailan kezka eta preokupazio gutxiena jasotzen duena, ikasle, guraso, direktiba eta irakasle aldetik... «ez omen da beste gaiak ainakoa... ez lan aldetik, ez jakintza aldetik, ez preparakuntza aldetik ez eta ere gizamaila aldetik».

3. — Preparazio falta irakasle aldetik:

Irakasle aldetik preparazio, sensibilitate, eta preokupazio oso urria da. Ez gara sekulan irakasleok hontaz serioski arduratu. Ez dira sekulan eskola eratzaileak (presupuesto eta lokal beharretan) hontaz serioski arduratu... Ez guraso, ez unibertsitate, ez majisterio eskolak, ez artistak, ez agintari.

4. — Prozesoa:

Txikitatik eta unibertsitate mailaraino programazio baten falta. Dudarik gabe, irakasle baten sentipen eta beharrak ez dira irakasle guttienak eta mailaz maila aurrera doazen bezala, irakasle desberdinekin aurkitzen dira eta prozesuak hautsiak ikusten dira. Urte batetan aurreratu dena hurrengo urtetan gal daiteke oso erraz eta zer esanik ez daukagu, urte zaharretan programazioa erabat teorikoa dela ofizial mailan eta ez daukala logikarik berez eguneroko programaketarekin. Inprobisazioa ona da, beharrezkoa gainera, baina bide batez eta orientaziorik ez badago, harriskutsua.

5. — Eskola barruan:

Ez dira eskola ugariak izango bere ekintza kanporatzen dutenak. Egia da plastika eta espresioa dela gehiena kanporatzen den gaia baina beti erresultatu eran eta ez aportazio kreatibo eran. Oso itxiak gaude edo ta itxiak egotera behar tzen gaituzte, baina ez dugu aportazio errealik egiten eguneroko bizitzan haurrak errealitate kreatiboago bat izan dezaten.

Istituzio bezala irekitasuna, kalleko errealitatea potentziatuaz. Eta ez agerpen edo ta txapelketekin bakarrik ez, ez da nahikoa. Bizia, bizitza bera da kreatiboki landu behar dena eta ez lau horma arteko eskola. Hemen lana noski ez da haurrekin bakarrik egin behar, baizik eta herria osatzen duten elementu guztiekin.

6. — Planteiamentu artifizialak:

Eskola barruan egin daitezken aldaketak beti artifizial geratzen dira, elkarreak ez dituelako pauso hoik ematen eta isolaturik geratzen direlako gure esperientzia elkarrean aldaketa iraultzaile bat, modu batetan behintzat, ematen ez baldin bada. Efektibitatea galtzen dute, inguruarekin ez direlako lotzen eta (ministeritzari edo «enseñanza general basikari» egin daiteke kritika hau) ez direla eskolatik kanpo nahiko bide eta instrumentu sortu ikastola edo eskolako bideak erreallitate bihur daitezten. Eskola ez doa inoiz iraultza sozial edo aldaketa bizi baten aurretik, baizik eta atzetik eta Espainiako estatuan beste zerbait azaldu nahi izan dute. Hots: Irakaskintza modelo berri batekin elkarrea engainatu nahi izan dutelako. Irakaskintzaren inguruko beste heziketa bideak aldatu gabe.

7. — Eskola ingurua:

Ez museoak, ez liburuak, zineak, liburutegiak, telebista, herri ekintzak... ez diote ekintza kreatibo bati, inizatibari eta espontaneitateari (autodidaktismoa eta abar) ezer askorik eskaintzen. Planteiamendu atzerakoi eta estatikoetan dabilzalako aberastasunaren ordean, pobretasuna eta pasibitate hutsa besterik ez dutelako ematen.

Plastika eta espresioak zer izan behar lukeen

Orain arte esandako guztia edota kritikaturako guztia izango litza-

teke plastika eta espresioaren definizioaren lagungarri.

Bestalde ere, ez gaitezen eror, zibilizazio honek ezarri digun konzeptuan. Hots: espresio bideak 7 Arteetan daudela sailkatuak eta zazpi arte edo espresio bide horietara mugatu behar dugula gure espresibitatea. Plastika, noski, Pintura eta eskulturari lotua joango litzateke eta muga horietan ibiltzea litzateke gure lana. Azkeneko hau ez dut inolaz ere onartzen, eskolak ez dituelako artistak sortu behar (helburu bezala). Artistak ez dira gure helburu. Gure haurren batek esku ona daukalako eta oso ederki marrazten dutelako ezin dugu pentsatu gure lanak exitoa izan duenik, ez eta gutxiagorik ere. Hots: Plastikak eta espresioak eskaini behar lukeena, zera da: inguruaren obserbaketarako kapazitate bat eta sensibilitate minimo batekin kritikotasun batek eraginik elkarri komunikatzeko beharra eta ahalmena. Ikaslea elementu dinamiko batetan bihurtu margo-forma-mugimendu-erritmo... eta abarrez orniturik. Iniziatiba landu. Eta inizatiba hau arlo eta maila guztietan lantzeko ahalmena. Bai eguneroko erropan jazterakoan, baita bere lanak organizatzerakoan, bai bere herriko urbanismoa kritikatzekoan edo tamendien edertasunetaz jabetzerakoan. Iniziatiba kritiko eta kreatibo bat... dinamika pertsonal hutsa... ilusio kreatiboa... komunikatzeko beharra... kreatibitate bizia... bizia bera. Eta andereño edo irakasle aldetikako inizatiba ez da

nahikoa. Plastika, beraz, ez genezake lotu oleo, buztina edo arkatzaz hutsera, baizik eta plastikaren sentidua inguruaren azterketa sakon batetan egongo da. Plastikak eta espresio bide guztiek eskaintzen duten bide guztien ezaguera... lokera logiko batekin, bainan batetik bestera salto egiteko askatasun osoa eta bide batez mugarik ezagutzen ez duen lana. Kreatibitatea «berez» landuaz.

Irakasleak alde hontatik asko dauka eskaini beharra eta lehenengo pausoa litzateke noski, geuk bide zabal hori deskubritzea, oztopo bat izan ordez askatasun kreatibo bat eskeiniatz, teknikak bere beharrei lotuaz eta dirijismoa heien eskutan utziaz.

Hara! nere ustez plastika gaiarekin lotu daitezken arloak:

Plastika gaien barruan zer sartu dugun orain arte

Pintura bide guztiak (teknika eta historia aldetik... experimental arloa ikerketa aldetik ere landuaz)

Eskultura (espazioaren inkorporazio materiala bezala, espazialismoa, habitabilitatea, proiektismoa eta maketismoa proiektu bezala erabiliaz presupuestoak eta materialen ezagupideaz baliaturik)

Artearen historia (Euskal Herriko-tik hasita munduko artera zabalduaz. Artearen klasifikapena gure herritan bertan topaturik eta Euskal Herriko historiarekin loturik)



Etxegintza (Urbanismoa eta Hirigintza gaiak, gizarte gai bezala, histori gai bezala, diseinu urbanistikoa bezala, inguruaren azterketa kritikoa, serbitzu arloa, ekonomi arloa, teknika arloa, bibentziak arazo eta proiektismo urbanistikoa... planogintza, interpretazioa, aportazio praktikoak, soluzioak...)

Inguruaren azterketa (ikusmen, ikumen, entzumen aldetik... observazioa aberastuaz, interpretazio orokor bat eginaz eta interpretazio hau plastika aldetik azalduaz)

Dekorazioa (apainketa: Jazkera, Baldosak, Zeramika, Arte herrikoia, Motiboak eta zibilizazioak, Geometrismoa eta diseinua)

Sinbologintza (Grafismo erak aztertzea, arte herrikoietan eta beste kulturetan)

Kartelgintza (kurtsoz-kurso prozesu bat eramanaz)

Publizitatea (Ikus-irakurketa landurik, ekonomi eta politiko arazoak plastikan nola interpretatzen diren landuaz)

Argazkigintza (Zinearekin batera, komunikazio bisual bezala landurik)

Liburugintza (diseinu portada eta barru eraketak, euskal liburuen azterketa plastikoki eta liburuen diseinu kreatiboa)

Moda eta estiloa (Ikus-irakurketarekin loturik) (lectura visual)

Keinu eta antzerkigintza (plastika gaiekin loturik)

Komunikazio bideak (Muntaketa musikalak diapositibaz ornituak, ambientazio eta antzerki dekorazioak...)

Giza espresioa (plastika gure gorputzetik edo gure gorputzaren esanahietik atereaz)

Musika erritmoa (plastikarekin ritmoa bateratuaz)

Natur jakintza (materialen ezagupide eta esperimentazio bezala, laboratorioria ikerketa bezala erabiliaz. Materiaren estruktura mikroskopioz eta erreakzio kimikoz landuaz eta erresultatu plastikoak bilatuaz...)

Gizarte arazo bibentzial kultural eta kreatiboak (gaur egun eta Euskal Herriko historian zehar)

Diseinua: Industrial, grafikoa, interiorismoa (teknikak landu, profesio arloetan jabetzarren)

Moldegintza (industrial eta artistikoa)

Geometrismoa (espazial eta plano mailan teknika eta abstrakzio bezala)

Artesania (materiaren utilizazio funtzionala. Euskal Herrian eta bere artistiko eraginak)

Materialen kolekzioak eta hoi erabilkortasuna

Hizkuntzaren errepresentazioak idazkeran mailan (poesi espaziala...)

OBSERBAKETA

SENSIBILIZAZIOA

INIZIATIBA

KREATIBITATEA

IMAJINAZIOA

IKERKETA ERREFLEXIO eta
METODOLOGIRAKO SENAK
LANDUAZ.

Azkenik

Plastika hitzarekin edo ta espresio hitzarekin, pertsonaren espresabideak lotu nahi baldin baditugu eta gure proposamena batasun honetan badatza, hots: Espresabide guztiak eta komunikazio beharrak direla nolabait gizonaren eraginik handienak eta klasifikazioa teknika hutsetik bakarrik onartzen dugularik, nork esan dezake ez gaitzekela hasi plastika klase edo ekinaldi bat musika batekin edo ta espresio korporala (gorputz-espresioa) lantzen. Zergatik ez?... Motibazioak bilatu behar ditugu, sensibilizatorako bideak, eta bide hauk non duten ohinarria ez genezake programa teoriko batekin ezarri.

Sensibilizazioa
Oharpena
Kreatibitatea
Iniziatiba
Ikerketa
Inajinaketa

Musika, dantzak, kirolak, antzerkiak, sikomotrizitatea... ez dira beraz hain urrun geratzen. Eta gure ekinaldien lagungarri bereziak dira noski. Ez pintzelak eta buztina, kolaiak eta egurra... ez dira noski gure eragin bakarrak. Errealitatearen interpretazio eta obserbazioa, komunikazioa eta azalpena izango da plastika eta espresioaren gai, eta honela aurkitzen gara gai zabal baterakoi eta aberats baten aurrean. Plastika, irakaskintzako gairik garrantzitsuenetako batetan bihurtzen dugu. Bere barrua dago irakaskintza globalizazioaren oinarria eta gizonaren errealizazio bide zabala... ez bakarra noski... bainan orain planteiatzen denaren aurka... gairik beharrezkoena eta beste gaiei bide logiko eta pragmatiko bat eskainiko diona.

Irakaskintza mailan orain arteko hau planteiatzen badugu, sar gaitzen azkenik giza behar hutsetan:

Nik esan nahi nuke, pertsonak buruan kapazitate konkretu bat daukagula. Ahalmen konkretu honen eraginda, espezializazio batetan erori garela; hots: Telebistak konpontzen ikasi baldin badugu, berebilak konpontzen ez dugula zergatik jakin behar. Eta nik etxeetako geletan, hormetan, papera jartzen ikasi baldin badut, iheltsero lanak igeltsariak egin beharko ditu eta igeltsariak bere lana bukatu arte, ez naiz nere lanean hasiko. Joan gaitzen beste mutur batetara: Filosofoak espezialista batzuk dira, historiagileak besteak, artistak eta matematikoak, besteak... neri ez

dit inork ukatuko nere giza-arazoak ohean almoada ondoak gauero planteiatzea eta filosofoari laguntza eskatzen diodanean (liburu bat irakurtzerakoan edo beste...) nere buruak planteiatu dizkidan zalantza batzuri erantzuteko edo laguntzeko izango dela... bainan giza behar basikoetan (politiko beharrak ere sartzen dira hemen) ez dut inolaz ere onartuko filosofo edo ta politiko batek bere existentziaren arazo guztiak soluzionatzea eta nere orde, nere buruaren ahalmenak ukaturik, berak bakarrik soluzio hutsak eskaintzea... hau ez du inork egiten eta are gehiago, jakintsu asko egonik ere, nere errealitatearen jabe, ni bakarrik izango naiz, espezialistak laguntza handia ematen didatarik, bainan behin ere ez «nere» bide hutsa.

Denok daukagu beraz eskubidea, guk gizon bezala dauzkagun arazoak planteiatzeko, noski. Jar dezagun beraz guzti hau kreatibitate mailan, eta zera honetaz konturatuko gara: Kreatibitatea eta espresibitatea ere espezializazio bat dela, nere kreatibitatea, imajinazioa eta espresioa artistak betetzen dutela eta haiek direla elementu kreatiboak elkarrean eta ez ni... gainera nik ez dut horretaz ulertzen. Beraz, bere eskuetan uzten dut lana... Egia da hontara heldu garela, teknikari ohore izugarria egiten diogula eta espresibitatea ere teknika espezial batetan bihurtu dela preparazioa minoritarioa eta eksklusibista delarik. Eta ez naiz sartzen espresibitateen azalpenekin (arte salak, arte

«ona», garestia eta «elitismoarekin», arte historiaren mitifikazio interesatuarekin eta mendebaldeko kulturaren alderdi zapaltzaileekin).

Gu ere eskoletan ez gaude errealitate eksklusibista eta partzial hontatik aparte eta arte eta espresioa ez dugu oraindik sakonki aztertu. Bide hauk eskaini dezaketen heziketa aztertu gabe daukagu. Ikaslea instrumentalizatu egin behar dugula egi borobila da noski, gaur egungo elkarrearen aurrean «nor» izan dadin eta zapaldua aurki ez dadin; bainan egia da bestalde, instrumentalizazio hori klasifikaketa batetan erortzen dela eta kreatibitate arloan dimentsio gutxi eskaintzen dugula, elkarrearen errealitate subkultural, subkreatibo eta inizatiba faltako bati nahi gabe amore emanaz.

IRAKASLE ELKARTEAREN BILERA

Azaroaren 12an egindako Batzar Nagusian, gure Elkar-teak bide zehatz bat aukeratu zuen. Ordu arte, Elkartea danetik zen pixka bat, langile talde, kultural talde, irakasle talde...

Batzar Nagusian argi eta garbi gelditu zen, ahal zen neurrian beste lanak alde batetara utzi eta Pedagogia lanari heldu behar ziola nagusiki. Pedagogiak behar zuela izan Elkartearen helburu nagusia.

Horrela mintzatu ziren han agertu ziren irakasleak eta onartuak izan, aurkeztu zituzten planak.

Bide hontatik abiaturik, egin da zenbait ekintza, eta lanak laburki aipatu nahi genituzke.

Matematika arloan, Abenduak 10ean egin zen lehen bilera bat, Jesus M. Goñik zuzendua. Nahiko informala izan zen, elkarrizketa bat batez ere, eta handik inkesta bat atera zen irakasleek ikusten zituzten arazo nagusiak bildu nahirik. Ikusirik oso jenerala zela Hiztegi problema, gai hontaz, zuzenean, egin zen beste bilera bat Urta-rrilak 28an, Mikel Zalbide eta J. M. Goñik zuzendua. Maila guztietako irakasleak etorri ziren baina Donostia ingurukoak gehienak eta beste bailaretan ere horrelako zerbait egitearen posibilitatea aipatu zen.

Bilera hontan ikusi zena hau da, ez dela horren zaila hitz soilak itzultzea, esaera matematiko konplikatua samar-
rarak baizik (el triple del cuadrado de...).

IKASTOLAK ELKARTEA

Hari honatik aparte, baina matematika gaien baita ere, oso interesgarria derizkiogu otsailak 15ean egin zen bilerari. Bertan 8gn. mailako Casasls testo liburua ez itzuli eta J. M. Goñik prestatutako materiala onartzea erabaki zen. Honek hutsuneak betetze lan bat dakar, eta Aste Santuan biltzekotan gelditu ziren irakasleak.

Plastika kursiloa Berrizen egin zutenek ere bildu dira. Kolorea erabili zuten gai nagusi bezala eta laister biltzekoak dira berriro ere, bakoitzaren esperientzia agertzeko.

Gaur egun, Ikastolak hazitzen doazen neurrian, gero eta handiagoa da haur erdaldunek sortzen diguten kezka. Hauei euskara nola irakatsi, zein metodo erabili, hauen eboluzioa e.a. aztertzen ari da Lontxo Oiarzabal (beste irakasle talde batekin) eta hontaz ikastaro batetarako programa bat osatua du dagoeneko.

Zenbait ikastoletan alde batera utzia dagoen zerbait izan daiteke musika. Irakasleok musikaz gehiegi ez ote dakigun beldurra, denborarik hartu ez, ikastolatik kanpora ikas daiteken zerbait ote den, edo... Dena dela, gertatzen dena da, musika gutxitxo lantzen dela ikastola gehienetan, eta hontaz posibilitate berri bat eskaintzen digula irakasle batek. E.G.B.ko lehen mailako irakasleek, horien behar eta garrantzia ikusiko balute, badago metodo bat ateratzeko bide bat eta irakasleak horren jabe egin daitezten, musikari hori prest dago metodo horren berri eman eta kursilo bat eratzeke ere.

Besteak beste, argi dago aurtengo Elkartearen borrokarik gogorrena, titulogabeen egoera konpontzearen aldekoa izaten ari dela.

IRAKASLE ELKARTEA

Gai hontaz izan dugu zenbait harreman Federazioarekin, Madrilgo Ministergoaren aurrean arazo hau nola agertu aztertzeko; fitxero oso bat biltzen saiatu gara, problema hau dela eta eratu ditu Elkarteak, Euskaltzaindiaren tituloa ateratzeko kursiloak; Euskaltzaindiarekin zuzenean izan dugu zenbait bilera...

Dena dela, andereño hauen egoera erabat eta betirako legeztatzearen aldekoa izan behar du gure borroka. Horretarako nahitaezkoa dirudi izango dela plan bat egitea, dagozkien agintariek onar dezaten. Plan honetan noski lehen hitza, interesatuak berak izan behar dute, eta zihur gaude arlo honetan teknikoak direnen laguntza osoarekin konta dezaketela.

Azkenik, udako kursiloak izango dira ikastaro honen bukaerako gure lan nagusia. Dagoeneko hasiak gara zenbait taldetako jendearekin hitzegtzen eta gaiak eta programak zehaztean, hauen berri emango dizuegu ahalik eta azkarren.

— Batzar Nagusiaren berri: Elkarteak pedagogia hartzen du helburu nagusi bezala.

— Ekintzak: Matematika batzarrak: Abenduak 10ean.

Urtarrilak 28an.

Otsailak 15ean (Casals)

Plastika: Urtarrilak 7an → kolorea gai nagusi bezala.

Haur erdaldunekin — (Jontxo).

Musika aldetik: Badago metodo bat ateratzeko posibilitatea irakasleek bere beharra eta garrantzia ikusiko balute.

- *Euskara.*
 - Federazioarekin harremanak.
 - Titulogabeen arazoa. Barzelonara biajea.
 - Udako kursiloak.
 - Testugintza.
- Beste batzuk (Debate Sindikalak, Seguridade Soziala).
- Matematika: bilera bakoitzean zer egin den, zenbat jende, zenbat denboratik edo biltzen joan diren.
 - Casalsen erabakia.
- Plastika: Udako kursiloetako planaren praktika nola joan den oraindaino.

ELKARTEA ELKARTEA

GORDAILU

Lehenengo aldiz kaleratzen den pedagogi aldizkari honetarako *Gordailu*-ri buruzko artikulu bat eskatu digute, eta gustora egiten dugu.

Batzuentzat polemiko eta beste batzuentzat ezezagun den *Gordailu* zahar honek, badu, bai, zer kontaturik. Aldizkari honek eskaintzen digun aukera ezin dugu inola ere baztertu, «irakasle elkarte» hein batetan eta editorial garenez gero, irakurtzen dutenei zer esana badugula uste baitugu.

Bi alditan egingo dugu agerpena: lehenbizikoan sorrera eta helburuak: historia pixka bat. Bigarrenean orainaldi eta etorkizunari begira *Gordailuk* dituen perspektibak.

1. Sorrera

Gordailu ez zen egun batean jaio, gauetik goizera.

Jakina da *I k a s t o l a* erakundea ideia eta asmo berriekin sortu zela, orduko eskola eta hezketa planteiamenduetatik erabat berri eta berezi. Helburuak haurraren eta herriaren zituen ipiniak.

Eskola berriak bide berriak eskatzen zituen eta hemen inguruan ez zen antzeko esperientziarik. Dena egiteko zegoen, beraz. Andereñoen,

gizonezkorik ez baitzen artean, gain etorri zen bideok markatu eta estrainatzea: pedagogi-metodologi oinarriak jarri eta aurrera abiatzea.

Elkar lana izan zen lanerako aukeratu zen modua: herrika, bailaraka eta eskualdeka, eguneroko gauzak elkarri pasa, liburu eta apunteak komentatu, ikastaldiak muntatu...

Hemendik dator irakasle elkarte baten beharra guzti hau koordinatu eta bultzatzeko. Hortik hartzen du gorputza *Gordailuk* 68-69 ikasturtean.

2. Helburuak

Irakasle elkarte bezala, irakasle-en eraginetik sortzen da *Gordailu*, goratxoago ikusi denez. Zein helburrekin? Hona 1974ko estatutotan jaso zirenetako batzuk:

- *Gordailuren* egitekorik nagusiena *Hezketa arazoa* da.
- *E u s k a l* Herriaren esperientzia konkretoan txertaturiko hezketa: gure kultura ezagutu, landu eta baloratuaz...
- haurrak askatasun aldera eramango dituen, norbere jokabideak autokritikatuaz, eta sozial

berdintasun batek dituen alde onak erakutsiko diena

— irakasleen prestakuntza b i l a t u behar du Gordailuk bakoitzaren lana gero eta jatorrago gerta dadin.

— geure materialgintza bultzatu: liburu, liburuxka, fitxa...

— irakaslearen eskubideak n a h i z ekonomiaren aldetik, nahiz lanbidearen aldetik begiratzeko eta zaintzeko ardura.

Hezketa esaten denean hezketa aktiboa ulertu behar da eta hauxe zen Gordailuk beti ere burutu nahi izan duen eginkizuna. (Freinet, Montessori, Declory, aski aztertuak izan ziren lehen garaietan; praktikara eramaten ere makinatxo bat ahalegin egin zen).

1968an bulego bat sortzen da bertan bilkurak egin, irakasleen zerbitzurako liburutegi bat prestatu, multikopia lanak bota eta egiteko. Aipa ditzagun Gordailuk bere zereginen eman dituen urrats batzu:

2.1. Ikastaldiak

1966tik gaur arte eten gabe egin dira Udako ikastaldiak: sarritan nahiko buruhausterekin: lege baimenik eza, joku maltzurak (Iruinean eta...), diru laguntzarik ez... Helburutzat irakasleen urteko lanaren agerpena eta hurrengo ikasturterako plangintza. Helburuok askotan urruti gelditu badira ere, ezin da ukatu Ikastaldiek, Udako eta urtean zeharrekoek, Ikastolaren pedagogia maila mantentzen egin du-

ten aportazioa. Konta ezinak dira erabili diren gaiak: hizkuntza, jolasak, gorputz espresio-sikomotrizitate, matematika, pedagogia moetak, irakurketa-idazketa, Gizarte eta Natur Zientzia...

2.2. Aldizkaria

Hiru urtez kaleratu zen diogun aldizkari hau: 1970-71-72. Gaurko irakasle askok eta askok ez dute eza-gutu ere egingo, baina bere garaian irakasleen arteko komunikabide aproposa gertatu zen: esperientziak bilduaz, hezketa problemak azalduaz, ikastaldien laburpenak emanaz... (Aurten bertan ikusia dugu irakasle bat 1972an idatzitako Natur Zientziatako artikulua bat irakurtzen eta aztertzen).

2.3. Irakasleen liburutegia

Bergara kaleko bulegoan bildu zen pedagogia-sikologia liburutegia guztiz premiazko zen irakaskintza berrikuntza batetarako: gai horietaz argitaratzen ziren lanak irakasleen zerbitzu jartzea zen helburu. Liburu mordoxka bat bildu izan da urteetan zehar gai askotaz. Gaur ere nahi duenaren zerbitzutan dago.

Bestetik, «irakasleen liburutegia» izenarekin bataiatutako liburu bilduma hasi zen Gordailu pedagogia gai interesgarri batzuk euskaraz emateko asmotan. Guztira 8 liburu eman zituen.

2.4. Irakasleen «residentzia»

Irakasleen prestakuntzari garrantzi handia eman zitzaion haseratik.

Horrela, 1963an «residentzia» sortzen da, Magisterio eskolan ikasten ari ziren andereñogaiak ikastolarako prestatzeko, eta Magisterio gabe ikastolan hastera zihoazenak «praktika» bidez gidatzeko. Merezi du azpimarratzea inizatiba honek, gaur egun jende asko hasten baita ikastoletan oso ideia gutxirekin. 1973 arte iraun zuen «residentzia» honek; Gordailu baino lehen jaio bazen ere, zerikusi handia izan zuten elkarrekiko.

2.5. Haurride

Lehen esan dugun hezketa aktiborako behar zen materialik ez zen hemen inguruan aurkitzen ahal. Makina bat irakasle ibilia da Baiona eta Bartzelona aldetik material honen bila. Exijentzia honi erantzuteko sortu zen, hain zuzen *Haurride* izeneko dena 1968an, material hautatuena bildu eta irakasleen egokieran jartzeko asmoarekin: eskulan, jostailu pedagogiko, haurren liburu... Gogora ekartzekoak dira egin ziren «errege kanpainak» gurasoak jostailuek zuten garrantziaz informatzeko, eta adinez adin zer jostailu moeta komeni zaien haurrei aditzera emateko.

2.6. Liburugintza

Ikastolak zituen premien artean liburugintza apropos batena zuen. Hanartean liburu gutxi ziren euskaraz, eta Ikastolak eskatzen zituen modukorik ia bat ere ez.

1968an Euskara batuari hasera ematen zaio Arantzazuko Batzarrean.

Garai hontan gerora begira berebiziko garantzia duen erabakia hartzen dute ikastola gehienek: Euskaltzaindiaren euskara batua onhartzen due. Makina bat eztabaida eta eten sortu zuen arazo honek garai haietan, eta geroztik! Irakasleen postura garbia izan zen: bide hura ikusten zen egokiena eta horrela erabaki zuen, poliki poliki ikastoletan sartzea.

Horrela, Gordailuren aukera hau xe bera izan zen.

1969an argitaratzen du lehen fruitua: «Ikastola hiztegia» eskola gaietarako behar ziren hitzak bildu eta batasun batean emateko. Tartean zenbait ipuin edo irakurgaien euskal itzulpenetan parte hartzen du.

1972an pedagogia aktiboak eskatzen zituen kontsulta liburuxka kolekzio bati hasera ematen dio: «Erleak eta ezia», «Olentzaro»... 1972-74 bitartean zenbait irakurgai eta kontsultagai ematen dira 6-10 urte bitartekoentzat: «Elurra», «Txantxangorri sorta», «Ardia»... 1975ean «Matematika hastapenak».

Hauek izan ziren Gordailuren liburugintzaren hastapenak, nahiz eta beste batzuen izenean kaleratu, Gordailuk ez baitzuen ez dirurik ez lege baimenik. Geroztikako lana ezagunagoa da. Jaso duen kritika ona dela esan behar da. Aurrera begira hemen duela Gordailuk esango genuke, bere etorkizunerako bide bat. Baina gai hau hurrengorako utziko dugu.

3. Gordailuk

Bere historian zehar eman dituen urrats batzu ikusi ditugu. Baina ez da dena hain polita izan. Kondizionamendu eta akatsak ere izan dituela ezin da uka. Bere historian zehar hauts galantak jaso ditu Gordailuk: hortan ez gara bakarrak, Euskalerriko erakunde guztien antzeko baizik: bat bera ere ez da izan denen gustoko: susmoak, ideologia joerak, euskara batua...

Garbi dagoen gauza bat zera da: gaurko GORDAILU ez dela orain 7-8 urtetakoa, eta ezin dela izan ere egin. Ordutik honera gauzak asko aldatu dira. Esaterako lehen garaietan ikastolako irakasle mailan erakunde bakarra bazen ere, gaur ez da horrela: Gipuzkoan eta Biz-

kaian, behintzat, badira ikastola irakasleen erakundeak. Eta ikastolatik kanpora ere orduan ez zen mugimendurik bada: pedagogi taldeak, irakasleen sindikatuak, sektore arteko loturak... Hezketa planifikazioa nahiko ezberdin planteiatzen da zenbait lekutatik: euskara zabaltzen ari, irakaskintzaren autonomia eskatzen da...

Egoera ezberdina da, beraz.

Guzti honek GORDAILUren zeregina zein den berriro planteiatu eta programa zehatz bat egitera bultzatzen gaitu.

Hurrengo atalean, bada, aztertuko dugu alderdi hau. Bien bitartean, inork gure berri zehatzago jakin nahi baleza, bere zerbitzuan gaitu. Tfnoa.: 943/42 97 79.

GORDAILUKO ARDURADUN TALDEAK. 78-IV-26

Ikastolen haserako hiztoriaz ikus «Gure ikastola» liburua. Jakin edit. Hemen ukitu ditugun gaiak «Ikastolen historiarako ikusbide bat (1960-1972)» eta «Ikastolak eta Irakasleak» artikuluetan bereziki.

FEDERAZIOA FEDERAZIOA FEDERAZIOA FEDERAZIOA FEDERAZIOA

Aldizkari pedagogiko bat argitaratzera omen doa. Hori delata, Federazioari lantxo bat eskatu zaio. Guk, nola ez, onartu dugu, partizipazio hau. Eta, horra, nonbaitetik hasi behar eta, gure gorabeherak azalduko ditugu.

Eskema moduko bat egiterakoan, lantxo hau, hiru zati egingo dugu nagusiki:

1. — Zer da Federazioa? Historia piska bat.
2. — Gure eginkizunak.
3. — Gerorako asmoak.

Has gaitezen bada.

ZER DA FEDERAZIOA?

Federazioa duela bederatzi urte sortu zen. Hain zuzen, 1969. urtean. Gurasoen beharrei erantzun nahiaz, noski. Dakizutenez, Elizaren babesean. Oraindik ere, berak uzten dizkigun lokaletan ditugu gure ofizinak, bulegoak. Hemen, Matia trasera-n, 21. zenbakian. Lehenengo lehendakaria Gurutz Ansola izan zen. Eta idazkaria Txomin Izagirre. Gotzaigoaren ordezkaria Joxe Lasa izan genuen.

D. Jose Lasak bere kargua utzi zuenean, D. Eugenio Arregi, Andoain-go apaiz jauna izan zen izendatua. 1974. urtean. Hurrengo urtean, hainbat urtetan lan egin ondoren, Txominek utzi zuen bere lekua, eta Pablo Agirrek hartu zuen lanpostu hau.

Federazioaren talde bateragilean 22 lagun gara. Urte biz behin, erdiak aldatzen dira, beste erdiak jarraitzen dutelarik. Bailara bakoitzeko haurren kopuruaren arabera aukeratzen dira ordezkariak. Ikastola guztiak osatzen dute ikasle kopurua, aukeratu behar diren arduradunen (22ren artean) artean zatitzen da: $27.423 : 22 = 1.246$.

Bailara bakoitzari, 1.246 ikasleko arduradun bat ematen zaio.

Behar bada, hune honetan komeni da azaltzea guk, Gipuzkoa, 11 bailaratan zatitzen dugula. Horra: Tolosa, Deba, Errenderia, Irun, Urretxu, Arrasate, Donostia, Goierri, Pasai, Urola, Zarautz.

Hogeita bi lagun hauek, osatzen dute «Talde Bateragilea». Eta Talde Bateragile hortako denak dute bere botoa lehendakaria autatzeko. Horrela autatuak izan dira, orain arteko lehendakariak.

Lehen «idazkari» bat izaten genuen egun erdirako. Orain, aldiz, badugu «idazkari» bat egun erdirako, eta beste bat egun osoan egoten dena. Egun guztian dagoena: Karmele Arregi da. Eta egun erdikoa: Olatz Izagirre.

Eraberean, lehen Txomin Izagirren garaian, berak egun erdia lan egiten zuen. Gero Pablo Agirrek ere horrela egiten zuen. Baina beharrak eskatzen zutelako, egun osoa sartzea komeni zela pentsatu zen. Geroztik horrela dago.

Gure Historia labur hau egin ondoren, egon daiteke oraindik norbait, zera galde dezakeena: Zertarako sortu zen Federazioa? Erantzuna hauxe da: Ikastolen zenbait arazo zuzentzeko, eta bakoitzak bakarka aurrera eraman ezin ditzazken gorabeherak koordinatzeko. Eta politika guztien gainetik.

EGINKIZUNAK

Eginkizunak asko eta ikaragarriak dira. Nola egiten dugun baino gehiago, nola nahi dugun azaltzea hobe izango da, noski. Horra eginkizun horien zerrenda:

- Lagun-Aro.
- Testoak.
- Udalekuak.
- Kirol Txapelketak.
- Idaz-marrakzi lehiaketa.
- Sikologia ikerketak.
- Kursilloak.
- Administrazioarekiko gestioa.
- Bulego juridikoa.
- Bailaretako plangintza.
- Restrukturaketa.
- Besteekin harremanak.

Lagun-Aro

Azaldu beharrik ez legoke, honen helburua. Hain zuzen, zenbait Ikas-
tolek ezin dutenean bere irakaslea aseguratu, garestia delako aseguratze
hori, «Lagun-Aro»ren bitartez egiten da. Noski, honek ez duela Seguritate
Sozialaren hedadurarik. Baina, mediku, medicina gora-beherak aseguratzen
ditu. Gure gain dago, honek dakartzan ekite guztiak.

Testuak

Euskal hurrek beren heziketarako zuten hutsuneari erantzun asmoz
ari da Federazioa testuak egiten. Euskal Herrian, euskaldunek eta eus-
kaldunentzat eginak diren eskola liburuak nahi ditu. Bien bitartean zenbait
itzulpenez ere baliatu da noski. Casals, Santillana eta Anaya argitaletxeen
zenbait liburu euskaratu izan du.

Pedagogia eginkor, sozializatzailerik, kritikoa eta eraginkorra, haurraren in-
teresei eta inguruari lotua, haurraren inguruarekiko konpromisoa eta hau-
rraren hazkundera bilatzen dituzten liburuak ari dira moldatzen.

Oinarrizko hezkuntza orokorreko zazpi ikasturteetarako testoak osatu-
rik ditu. Urte hoiek denak euskaraz irakatsi daitezke beraz, erabat.

Iker-ek «Saioka» deitu bost liburu eginak ditu aurreneko bost urteeta-
rako. «Gero»k seigarren urteko Sozial Arloa du eta zazpigarrena egiten ari
da. Horrez gain lehen bost urteetako irakurgaiak argitaratuak ditu. Baita
euskarazko gramatika ere.

Erdal textuetatik berriz, Casals-en Matematikak daude euskaraturik,
8garren mailakoa ez beste guztiak. «Elhuyar» taldeak «Anaya» argitaletxea-
ren 6 eta 7garren Natur Zientziak ditu euskaraturik. Hoietaz aparte San-
tillanaren 4 eta 5garren urteetako liburuak ere salgai daude. Baita Kristau-
-ikasbidea ere.

Udalekuak

Beren haurrak ikastoletan dabilzkiten familietan, asko dira euskaraz ez
dakitenak eta beren inguruan euskal giroa ez daukatenak. Horrek asko
atzentzen du udan haur horien euskara.

Oker hori zuzendu nahiaz, Federazioak udalekuak antolatzen ditu ikas-
toletako haur guztientzat eta lehen aitaturiko horientzat bereziki, kurtsoan
izan duten euskal giroaren luzapen bezala. Nafarroako Iratzen eta Artajo-
nan egin ditugu azken urtetako udalekuak. Aurten Iratzen eta San Asen-
sion (Logroño) egingo ditugu. 500 haur inguru izango ditugu udaleku

hauetan. Haur bakoitzeko 800 peztako defizita izan dugu azken urteko udalekutan eta aurten kuota berdina kobratuko diegu. Beraz, aurten haur bakoitzeko galera 960 peztakoa izango dugu gutxi gora behera.

Kirol Txapelketak

Federazioak urtero antolatzen du Ikastolen artean, arrera handia izaten duen zenbait txapelketa.

Aurten Crossa, pelota txapelketa, futbol txapelketa, atletismoa eta igeri txapelketa eratu ditu Federazioak.

Neska mutik askok hartu dute parte aurtengo kiroletan:

Lasarteko Cross-ean	22	Herri eta	900	haur
Pelota txapelketetan	24	»	»	118 »
Futbol »	23	»	»	1.140 »
Atletismoan	25	»	»	1.250 »
Igeriketetan	11	»	»	87 »

Aurten, eraketa berri batetan egin ditugu gauzak eta gero eta zuzenago eratuko direla uste dugu saio hauek. Kirol hezketak garrantzi handia badu haurarren hezketa osorako, ikastolek alderdi hau gehiago landu beharko lukete. Hau kontutan har dezaten, honelatsuko txapelketak eratzen jarraitzea, beharrezkoa deritzaigu.

Idaz eta Marrazki lehiaketak

Maiatzaren 22an eta Loiolako ikastolan ospatu ziren lehiaketak.

Orain arte egun eta leku bakar batetan egin badira ere lehiaketak, aurten lehen ihardunaldiak bailaraka egin dira eta bailaretan aukeratutako onenak bakarrik Loiolan.

Irakasle Elkartearen laguntzarekin eratu ditugu lehiaketa hauek. 570 izan ziren lehiatu ziren ikasleak.

8 mailatakoak lehiatu ziren, mailaz maila banatuaz.

Talde bakoitzean lau lehenengoei eman zitzaien saria. 64 sari banatu ziren beraz.

Norgehiagoketak alderdi eztabaidagarriarik baldin badu ere, honelako egunak badute alderdi onik. Hango eta hemengo gurasoak, haurrak eta batzordeak elkar ikusteak eta ezagutzeak alderdi on asko du. Eta Gipuzkoako Federazioa alderdi on hoiek landu nahirik dabil azken urteotan.

Sikologia ikerketak

Federazio honek urtero sikologi eta sozioloji talde espezializatu bat hartzen du ikastoletako ikaslegoaren mailari dagozkion datoak eskura ahal izateko. Zenbait kasutan gurasoek erantzuten die gastu hauei; baina hori, haurraren nortasun arazoa denean. Baina, jakintza maila eta horrelakoak aztertzen direnean, Federazioak erantzuten die gastuei.

Kursilloak

Hontaz egin dugun gauzarik garrantzitsuena izan zen, duela bi urte egin zen symposium famatu hura. Zenbait taldek elkaturik eratu genuen. Gu ere hantxe ginen. Elebitasunari buruz, enbido garrantza izan zen. Eta gerotik lan egitea eskatzen zuena. Arrakasta haundia izan zuen. Orain, lanbide hau, Irakasleen Elkartearen menpean utzi dugu. Pentsatzen dugu, haiei hobeto dagokiela honelako zeregina.

Administrazgoarekiko gestioa

Joan etorri asko egin behar izaten ditugu Madrilera, Delegazio eta beste zenbait tokitara. Egun asko galdu arazten digute eginkizun hauek eta gastu handiak egiten ari da Federazioa gestio hauek direlata. Azkenengo bolara hontan ere han ibili gara. Zerbait lortu dugu eta aurrerantzean gehiago lortuko dugula uste dugu. Ikusi egin behar...

Bekak Magisterio ikasten ari direnentzat

Ikastoletako asmotan ikasten ari diren zenbait ikasleei, bekak ematen dizkiegu bere kastutan arintzeko.

Bulego juridikoa

Ikastola gehienei lege arazo asko sortu ohi zaie beren eginkizuna eramateko. Arazo horietaz ondo jabetua egongo den norbaiten beharra ikusi dugu eta hortarako lege gizon bat hartu du Federazioak, eginkizun hontaz jabetu eta ikastolen lege alderdiaz arduratzeko.

Astean ordu batzuk lan hontarako pasatzen ditu lege gizon honek.

Bailaretarako Plangintza

Gipuzkoa mailan, bailaretako estudio batzuk egin nahi lituzke Federazioak, hurrengo urtetan ikastolen zabalkundea eta honek sortuko dituen beharrak jakin ahal izateko.

Restrukturaketa

Badira zenbait urte, hiru osoak, Euskalerriko Federazio guztiakin «Konfederakuntza» bat egin nahi dugula. Lehenengo bilera, iragan den urtean izan genuen eta Gasteizen. Asmoak asmo, oraingoz, asmoa ez dugu lortu. Ez da dena, ordea, alferrik izan. Elkar hurbildu gara, gutxienez.

Lehen aitatu dudan bilera hortatik aurrera, beste hamar aldiz elkartu gara Euskalerriko Federazio guztiak. Dena dela, elkarrekin batera eta lehenengo aldiz egin dugun ekintza, Madriden egin duguna izan da. Han Heziketa eta Zientzia Ministergoaren aurrean azaldu ginen, iragan den Azaroan.

Geroztik ere, asmo berdinekin jarraitzen dugu. Araudi bat lortu nahi genuke denak onartua, horrela elkar gaitezen. Gure ahaleginak hortara doaz. Egindakoa zerbait da, egiteko dagoena, berriz, ikaragarria.

Konfederakuntza honek, Federazio guztien batze bat izan nahi luke. Inor suntsitu gabe, bakoitzak bere autonomiarekin jarraituaz, eta ekintza garrantzitsuenetakoetan elkartu denok batera. Beraz Konfederakuntzaren asmoa «Eginkizunen Koordinaketa» da.

Besteekiko harremanak

Testugintzak direla, restrukturazio berri baten beharra nabaitzen genuen. Hortarako kontaktoak izaten hasiak gara Irakasle Elkartearekin. Luze-luze litzateke, zehaztasun guztiak ematea.

Bestalde, «Irakasleen Kursilloak» beregain utzi ditugu. Uste bait dugu beraiei hobeto dagokiela alor hau guri baino.

GERORAKO ASMOAK

Puntu hau ikutzean, hiru zati bereiztuko ditugu:

- Eskola Profesionalak.
- Bulego berria.
- Federazioaren Araudi Aldaketa.

Edonork pentsatuko du, noski, lehen egin ditugun lanekin ere aurrera eraberean jarraituko dugula. Edota, akaso, indar berriekin. Nork daki. Baina hor goien jarri ditugun hiru puntuak berriak dira, eta, beharbada, interesgarriak.

Eskola Profesionalak

Orain arte, Ikastolek ia ez dute Eskola Profesionalik sortu. Halako zerbait badago, Lizeoan. Eta ez askoz gehiago. Ikastolen indarrak, Oinarrizko Heziketan, BUPen eta abarretan desarroilatu dira. Eraberean, «Talde Bat-eragilean» Eskola Profesionalak ez du ordezkariarik izan. Ez dira egon erre-presentatuak.

Aatal hau, beste hiru zatitan banatuko dugu. Ez bait dira Eskola Profesional guztiak kondizio berdinetan egongo.

1. — Lehenengoak, Federatuko direnak izango dira.
2. — Gure Araudia onartuko dutenak, eta, luzarora begira, sartzeko sibilidade barruan daudenak.
3. — Kanpo geldituko direnak. Nahi ez dutenak...

Bulego Berria

Gure Bulego hau, txikia, benetan txikia, gertatzen ari zaigu. Gure eskuarteko paperetan erraz galtzen gara, leku falta hutsez. Horrek, leku hobe eta handiagoa behar dugula adierazten du, alegia. Eta, hara ba, ari izan gara leku bila eta badugu, dagoeneko, bajo bat gustokoa. Prezioa badakigu, kreditorekin ausartzen gara. Eta, uste dugu, laister haruntz joango garel. Leku hau, Amaran dago.

Federazioaren Araudi Aldaketa

Araudi hauk ere, berriketa sakon baten beharrea aurkitzen direla uste dugu. Guk hala uste genuen, eta eraberean, gauza berarekin etorri zitzai-gun Setien Gotzaia. Berak zioenez, Araudi hauk alda beharrak ziren. Beste zenbait lekutatik ere entzun dugu hala behar duela.

Beraz, Gotzai Setienekin harremanetan jarri gara gauza hori burutze-ko. Lehen Elizaren babespean zegoen Federazio zen bezala, laister, Federa-zio Zibil hutsa izango dela aurrera dezakegu. Hala komeni zala adierazi zi-guten Gotzai etxetik.

Horiek dira, besteak beste, gure asmo nagusiak. Hamaika zehaztasun eman dezakegu gure ekonomia delata. Luze joko duen bildurrez, mozten dugu. Baina, norbaiti hori interesatuko balitzaio, badakizue non gauden, edota deitu telefonutik (21 51 02).

ARPIDETZA

IZENA

HELBIDEA

TEL. HERRIA

NOLA ORDAINDU

Reenboltsoz

Banketxe edo Aurrezki Kutxa bitartez

Kontu korrentearen zenbakia

Jiro postalez

Oharra. — Periodizitatea finkatu gabe dagoenez gero, aleka kobratuko da.

IDAZTEN KOLABORATU NAHI DUTENAK

IZENA

HELBIDEA

TEL. HERRIA

GAIA

NOIZKO

ARRIDETZA

IZENA

HELBIDEA

URRATS

TEL.

NOIA ORDAINDU

Liceo Santo Tomás

Penpoltsoz

Polígono Cultural Ibaeta

Banketxe edo Aurrezki Kutxa biltzetan

SAN SEBASTIAN

Jiro postalez

Oharra.—Periodizidabean finkatu gabe dagoenez gero, aleka kopiatuko da.

IDASZEN KOLABORATU NAHI DUTENAK

IZENA

URRATS

HELBIDEA

TEL.

Liceo Santo Tomás

HERRIA

Polígono Cultural Ibaeta

SAN SEBASTIAN

GAIA

NOIZKO

URRATS